


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko urriaren 26a / 470. zenbakia



ZUBIAURREKO TUNELA Hasi dira zulatzen

UDAL ZERGAK: 2002KO ORDENANTZA FISKALA ONARTU DUTE/5 • ESKUBALOA: SENIOR TALDEA LIDER/10



X-TRAIL BERRIA

-TREME LIFE

- ☑ ALL MODE 4X4 TRAKZIO SISTEMA ELEKTRONIKOA
- ☑ 4 AIRBAG
- ☑ ABS.EBD (BALAZTATZEAREN BANAKETA ELEKTRONIKOA)
- ☑ NISSAN BRAKE ASSIST.
- ☑ EPS+ (EGONKORTASUNAREN KONTROL ELEKTRONIKOA)
- ☑ 4 DISKOZKO BALAZTA.
- ☑ XXL EGUZKI-SABAI PANORAMIKOA.
- ☑ MALETATEGIA HANDIA DA ETA GARBI DAITEN BI MOTOR MODERNO.
- ☑ 2.2L COMMON RAIL T-DIESEL INTERCOOLER 6 MARTXAKOA.
- ☑ 2.0L 16V., GASOLINA (MARTXAK ALDATZEKO ESKUZ EDO AUTOMATIKOKI)

3.923.000 pta.tik
aurrera*

SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA

KM. MUGA BARIK



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsatzen jatzu martxan jarriko dan basuriandako ontzi sistemian?



ARANTZAZU TXINTURRETA
25 urte

Orain artekoa hobia, basuria laga eta segittuan eruatzen dabelako. Kontenedore sistemian, enpresiak ondo eruatzen badau, baina ondo, baina pillatu egin leizke eta usaiña bota.



ESTEBAN JASO
31 urte

Oraingia baino hobia pentsatzen jat. Poltsan ze dagon arabera, gehixegi da bi egun etxian eukitzia. Kontenedoria garbixagoa izango da, enpresia arduratuko dalako hustiaz.



ANASTASIO HERRÁN
73 urte

Hobeto pentsatzen jat kontenedoria. Nahi dozunian bajatzen dozulako basuria. Gaiñera, garbixagoa izango dala pentsatzen dot, danok be laguntzen badogu eta kanpuan laga ez.



IÑAKI OSTOLAZA
59 urte

Sistema hori hobia izango dala uste dot. Ordu eta egunik ez dogu izango basuria etaratzeko. Baiña bueno, nik askorik ez dakit, andria ibiltzen da-eta holako gaurzetan.



JULIA FLORES
46 urte

Ez jat askorik gustatzen. Hobe da bi edo hiru egunian behin etaratzia, kontenedorian pillatuta eukitzia baino. Nahiko zikiña pentsatzen jat enpresiak eguneroko jasotzen ez badau.



GLORIA PERA
21 urte

Hobia eta erosuagoa pentsatzen jat. Nahi dozunian etaratzeko aukeria dauka, eta gaiñera, ez die lurrian egongo. Hori bai, gutxienez bi egunian behin hustu biharko litzake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK SAN JOXEPE ELKARTEA Bost urtetik hona, huts egin barik, Hamabostaldi Kulturala antolatuta izan dute San Xosepe erretiratuen elkarteko kideek. Urtero moduan, irteerak, lehiaketak eta hainbat hitzaldi interesgarri (argazkian, Javier Elzo, hizlarietako bat) egin dituzte. Hori guztia txalogarria da. Hala ere, uste dugu euskarari jaramon handiagoa egin beharko lioketela./MONIKA BELASTEGI

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

Zubiaurreko tunela

Duela hiru aste hasi ziren lanak. 16 metro zulatu dituzte, eta Gabonetarako amaituko dute.

KIROLAK /10

Partiduak Udal Pilotalekuan

Bergara KEko pilotariak Gipuzkoako Txapelketako partiduak jokatuko dituzte astebukaeran.

KULTURA /12

Orfeon Pamplones

Orfeoi nafarrak emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro parrokian.

IRAKURLEAKMINTZO

AGORROSINGO KIROLGUNEAREN INGURUAN

BERRIGARaren 468. zenbakian *Orain arte plisti-plasta...* artikuluarri erantzun nahi diogu. Agorrosingo proiektuez hainbat komentario egiten zen: "Aurreko baldintza kaskarrak mantendu ere ez dira egiten proiektu berrian, nabarmen atzera egiten da".

Proiektatzen ari den instalazioak 3 igerileku izango ditu: bata igeri egiteko eta 10 kalerekin, oraingoaren bikoitza; bestea haurrentzako; eta, azkenik, jolas igeritokia: ur oheak, txorrotak, korrontearen aurkako igeriketa egiteko eremua, eta abar. Igeritokiak urte osoan erabili ahal izango dira, orain arte ez bezala.

Gainera, lau gimnasio izango ditu, fitnessa egiteko eta klaseak emateko. Belar artifizialeko futbol zelaia ere izango du, harmaila eta guzti. Sauna, masajea, bainu turkiarrak, jacuzzia. Klubendako lokala, bilera eta proiektzio gela. Aldagelak bitik hamabira pasatuko dira; taldeentzako, banakako erabiltzaileentzako, elbarrituentzako, haurrekin doazen helduentzako, eta abar.

50 metroko igeritokirik ez dugu izango, baina zerbitzuak oraingoak baino askoz hobekiago izango dira herritar guztiendako, "kaliangora" "kalianbehera" ez badute ibili nahi.

Bukatzeko, esan, piraguismo taldearekin hitz egiten jarraituko dugula eta irtenbidea ematen saiatuko garela, nahiz eta irtenbide hori Agorrosingo igerilekutik kanpo izan.

UDALEKO KIROL ZERBITZUA

BERAIEKIDINE/ Xabier Azkarate



Fantomasen itzulera V

Lerro batzuk idazteko eskatu eta, bai edo bai, gerra hotsak agertzen dira nere tripetan.

Badirudi N.Yorken gertatu zana gertatu ostian, orduantxe hasi zala benetako gerria mundu honetan, eta orain arteko gatazka, gerra, eta abar guztiak arazotxuak izan direla. Falta dana entzutia zera da: hemendik aurrera urtiak irailaren hamaikatik aurrera hasiko garela kontatzen.

Askok kezkatzen nauen gaia da zein eskuetan garen ikustia, konturatzea zelako gizartia inposatu nahi dan. Adibidez: ez dakit konturatu zaren nun ibilittakuak diran momentu honetan USAn agintari dabitzenak. Batzuk petroliuarekin Plisti-Plasta ibilittakuak munduan zihar, beste batzuk Pin-Pan-Pun armagintzan jo-ta-fuego, beste pare bat Botika-Kimika-Pozoingintzan. Eta hauei

gehitzen bajeu atzian daozen indar ekonomiko ezkutuek, pentsau zer-nolako erabakixak hartuko ditten! Eta hau ez da USAn bakarrik gertatzen dan zerbait.

Juan dan domekan, artikulua bat idatzi zeben hemengo periodiko batian, eta bertan, Euskal Herrixan armagintzan diharduten enpresa batzuen datu interesgarri batzuk agertzen dira. Zerrenda horretako enpresa gehixenak gure erakundien laguntza eta laudorixuak jaso ditten.

Biharbada, errezena etsai ezkutu eta maltzur bat dagoela sinistia da; gehixegi pentsau barik egia dan edo ez, oraingo honetan Bin Laden da, hurrenguan auskalo. Gure Fantomas zaharra agertu da berriro, badaukagu etsaia. Hori bai, beste irtenbide modu batzuk aztertzea... tarari, horrek norberaren etxe barruan begiratzea suposatuko leuke, eta hori sekula ez.

"Askok kezkatzen nauen gaia da zein eskuetan garen ikustia, konturatzea zelako gizartia inposatu nahi dan"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elokoroberebizar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 26
CAMACHO. Oxirondo, 4. 943 76 11 74

ZAPATUA, 27
PUY. Barrenkale, 25. 943 76 16 87

DOMEKA, 28
PUY. Barrenkale, 25. 943 76 16 87

ASTELEHENA, 29
GUALLAR. San Antonio, 5. 943 76 11 05

MARTITZENA, 30
ESTELLA. Matxiategi, 5. 943 76 19 63

EGUAZTENA, 31
MOZOS. San Pedro, 4. 943 76 12 15

EGUBAKOITZA, 26
CAMACHO. Oxirondo, 4. 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaiztza 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepayo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emailleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kirodegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatuaren Etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina	Labegaraieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
11:30, 13:00.	San Lorenzo
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak:
San Pedro	20:00.
Domekak:	Angiozar
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:00.
lanegunak: 19:15.	Moja
Sierbak	Zaharrak
Lanegunak: 19:30.	Domekak: 18:00.
Osintxu	Zapatuak eta
Domekak: 11:30.	lanegunak: 20:00.
Zapatuak: 19:00.	Mizpirualde
Elosu	Lanegunak: 11:45.
Domekak: 10:30.	Zapatuak: 17:30.
Ubera	Antzuola
Domekak:	Domekak:
10:30.	09:00, 11:30.
San Juan	Zapatuak eta
Domekak: 11:00.	lanegunak: 19:30.
San Prudentzio	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

1947KOEN AFARIA
1947koen afaria urriaren 27an Tartufon. Autobusa 20:30ean Santa Marinatik.

1933KOEN BAZKARIA
1933an jaiotako bazkaria urriaren 28an Torrekua erretegi. Aurretik meza Santa Marinan, 13:00etan.

1939AN JAIOTAKOAK
1939koen afaria azaroaren 10ean Pertxan. 9943 76 28 58 (Pello Garitano).

1953AN JAIOTAKOAK
1953koen afaria azaroaren 10ean Txarrantxa jatetxean. Izena ematea (2.000 pezeta-ko depositoa) Txarrantxan.

1945EAN JAIOTAKOAK
1945koen afaria azaroaren 10ean Azpeitxi jatetxean. Izena ematea (4.000 pta.) Euskadiko Kutxan.

1951N JAIOTAKOAK
1951koen afaria azaroaren 10ean Lasa jatetxean. Izena ematea Euskadiko Kutxan azaroaren 1era arte.

1930EAN JAIOTAKOAK
1930ean jaiotako bazkaria azaroaren 11n Torrekua jatetxean.

ODOL-EMATEA
Odol-ematea eguaztenean, hilak 31, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

JARDUNENAGENDA

ASTEBUKAERAKO EKINTZA
Zapatuan, 16:00etatik aurrera, jolasak izango dira Kartzelan, eta domekan, ordu berean, San Martziale-ira irteera egingo dugu.

JARDUNEKO TXARTELA
Laugarren eta seigarren mailako gaztetxoek aukera daukate oraindik bazkide txartela egiteko.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Kutxaren bulego berria zabaldu zen Plazan

Kutxak San Martin plazako bulego berria inauguratu zuen 1991ko urriaren 25ean. Alberto Arizaga Kutxako zuzendariak esan zigunez, "etorkizunaren erronkari aurre egiteko kalitatezko zerbitzua eskaintzeko prest dagoen bulegoa da. Bezeroei zerbitzurik onena eskaintzea da helburua".



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txoliña"



Pertsona berritsu eta kaskarina (emakumeei buruz, batik bat).

ASTEKOPELIKULAK

'LA PAREJA DEL AÑO'

ZUZENDARIA: JOE ROTH. **AKTOREAK:** JULIA ROBERTS, BILLY CRISTAL. CATHERINE ZETA-JONES, JOHN CUSACK.

HARIA. Gwen Harrison eta Eddie Thomas aktore ospetsuak bikote dira. Elkarrekin film bat errodatzen ari direla, euren erlazioa arriskuan jarriko da.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta 22:15ean eta astelehenean 19:30ean.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 10	8 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 12	26 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	14,9 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 17	26 °C 12 °C 0,3 l/m²
Eguena, 18	25 °C 9 °C 2,1 l/m²
Egubakoitza, 19	20 °C 13 °C 10,7 l/m²
Zapatua, 20	20 °C 8 °C 1,2 l/m²
Domeka, 21	23 °C 11 °C - l/m²
Astelehena, 22	20 °C 11 °C - l/m²
Martitzena, 23	20 °C 10 °C 0,6 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

'POKEMON 3'

ZUZENDARIA: KUNIHICO YUYAMA.

HARIA. Marrazki bizidun hauetako jarraitzaile sutsuendako egitza film. Spencer Hale irakasleak Pokemonak ikertzen dihardu, eta ametsak interpretatzeko gaitasuna duten Unown izeneko Pokemonen sekretuak aztertzean, beste errealitate bat ezagutzeko aukera izango du.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Zapatuan eta domekan 17:00etan.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA MARGOAK

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

UDAL ZERGAK/ Datorren urteko ordenantza fiskala onartu zuten astelehenean egindako osokoen bilkuran

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuengatik %4 gehiago ordainduko dugu 2002 urtean

MONIKA BELASTEGI

Joan den astelehenean onartu zuen udalbatzak datorren urterako ordenantza fiskala. Horrela, 2002 urtean, %4ko igoera izango dute, oro har, Udalarik ordaintzen dizkiogun tasek, urak esaterako. Hilerriko kuotaren kasuan, igoera nabarmenagoa da: %10.

Datorren urteko ordenantza fiskalaren zergak ezartzeko orduan, eta horien igoera erabakitzeke orduan KPIren (Kontsumoko Prezioen Indizea) igoera hartu dute kontuan Udal arduradunek. Hau da, iazko irailetik aurtengo irailera bitartean KPIk izan duen igoera; %4, hain justu ere. Eta horixe da, ordenantza fiskalaren tasak ezartzeko Udalean erabili duten erreferentzia. Hala eta guztiz ere, ez diete Udaleko zerbitzu guztiei igoera berbera aplikatuko. Kanposantu eta estolderia zerbitzuek beste igoera bat izango dute, %10 eta %6,25, hurrenez hurren.

Erabaki horiek guztiak, asteleheneko osoko bilkuran hartu zituzten EAJ-EA, Batasuna eta PSE-EE alderdien oniritziarekin.

ZERBITZU DEFIZITARIOA

Kanposantuko zerbitzuaren tarifa %10 igotzeko arrazoia, zerbitzu defizitarioa izatea da. Izan ere, Udalak hilerriko tasekin jasotzen duenarekin, zerbitzuaren erdia baino ez du finantzatzen. Iaz, arrazoi beragatik, portzentaia bera igo zuten.

Bestalde, hilobiratze mota guztiak berdintzeko asmoz, nitxoan hilobiratzeagatik ezartzen den tarifa ezarriko da honako kasuetan: udal-panteoia, udal-berja eta lurra.

Estolderiaren kasuan, horren igoera ere %4 baino handiagoa izango da, %6,25, hain zuzen ere. Arrazoia da, Gipuzkoako Uren Partzuergoak beste Udal batzuetan ezarri duen kopuruarekin bat egitea.

ZABORRA ETA URA

Aipatutako bi salbuespen horiez gain, gainerako zerbitzuek %4ko igoera izango dute. Hori horrela, zaborra batu eta deuseztatzeagatik, aurten Udalarik 1.635 pezeta ordaindu izan dizkiogu hiru hilero. 2002ko urtarriletik aurrera, %4ko igoera izango dugunez, 1.700 (10,20€) pezeta ordainduko ditugu. Baserritarrek ere, edozein etxebizitza partikularrekoek ordaintzen duten prezio bera izango dute, hiruhilabetero.

Uraren kasuan, iaz igoerarik izan ez zuen bezala, aurten %4 igoko dute. 86 pezeta (0,52€) ordainduko dugu ur m³ bakoitzeko, 40 m³ arte. Hortik gora, 180 pezeta m³ a (1,08€).



Kanposantuaren kasuan, igoera %4koa izan beharrean, %10ekoa izango da, zerbitzua defizitarioa delako.

MONIKA BELASTEGI

Aurten ez bezala, datorren urtean %4 gehiago ordainduko dugu zaborra eta ura, hiru hilero

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Ibilgailuarengatik ordaindu beharko dugun tarifak ere igoera izango du. Beti ere, ibilgailuaren potentziaren eta motaren arabera tarifa.

Turismoen kasuan, txikiena-

Kanposantuaren zerbitzuko tarifa %10 igoko dute 2002 urtean, eta estolderia, %6,25

gatik (9 zaldi fiskal baino gutxiago), 5.075 pezeta (30,50€) ordainduko ditugu datorren urtean, eta aurten, 4.880 pezeta ordainduko ditugu. Turismo handienari dagokionez, berriz (20 zaldi fiskal baino gehiago), 37.205 pezeta (223,60€) ordainduko ditugu 2002ko urta-

2002ko ordenantza fiskala Kontsumoko Prezioen Indizearen proportzioan igo du Udalak

rretetik aurrera, eta aurten, 35.770 pezeta ordaindu beharra izan dugu.

KIROL GUNEETAN ERE TARIFEK GORA EGINGO DUTE

Gauzak horrela, igerileku eta kiroldegiko instalazioak erabil-

tzeko honako tarifak ordaindu beharko ditugu urtarriletik aurrera, besteak beste: igerilekuetako karnetaren kasuan, 18 urtetik gorako pertsona batek, 15.760 pezeta (62,80€) ordaindu beharko ditu; egun baterako sarreren kasuan, aldiz, 575 pezeta (3,45€).

BESTE IGOERA BATZUK

Ordenantza fiskalaren aldaketa horrek Udalak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuetan ere eragingo du: merkatuan, Mizpirualde egoitzan, etxez etxeko zerbitzuan, Udal Euskaltegian, txakurtegian, ondasun higiezinaren gaineko zergan...

Ura eta zaborra

Hiru hilabetetako datuak	2001	Igoera	2002
Mantenimendua	365 pta	%4,00	2,28 € / 380 pta
Estolderia	1.080 pta	%6,25	6,80 € / 1.131 pta
Ura	3.320 pta	%4,00	20,80 € / 3.460 pta
BEZ	290 pta	%4,00	1,83 € / 304 pta
Zaborra	1.635 pta	%3,80	10,20 € / 1.700 pta
GUZTIRA	6.690 pta	%4,23	41,91 € / 6.975 pta

Turismoen gaineko zerga

	2001	Igoera	2002
< 9 zaldi fiskal	4.880 pta	%4,00	30,50 € / 5.075 pta
9 - 11,99 zaldi fiskal	9.755 pta	%4,00	61,00 € / 10.150 pta
12 - 13,99 zaldi fiskal	16.260 pta	%4,00	101,65 € / 16.925 pta
14 - 15,99 zaldi fiskal	22.765 pta	%4,00	142,30 € / 23.980 pta
16 - 19,99 zaldi fiskal	29.270 pta	%4,00	182,95 € / 30.445 pta
> 20 zaldi fiskal	35.770 pta	%4,00	223,60 € / 37.205 pta



Irudikoa moduko edukiontzia jarriko dituzte. Zaborra astean hirutan jasoko dute, gaez.

ZABORRA/ Urtariletik aurrera, zaborra edukiontzira bota beharko dugu

Astean hirutan hustuko dituzte zabor edukiontzia

MONIKA BELASTEGI

Joan den astean aurreratu genuen moduan, Mankomunitateak zaborrendako edukiontzia zerbitzua jarriko du abian urtariletik aurrera. Bergaran 119 ontzi jarriko dituzte, eta Gallastegi alkateak esan duenez, astean hirutan eta gaez hustuko dituzte.

Esan bezala, Bergaran 119 edukiontzia jarriko dituzte. Horieta- tik 45 ontzi 3.200 litroko edukie- rakoak eta gainerako 74 ontziak 2.400 litrokoak. Victoriano Gallas- tegi alkatearen esanetan, edu- kiera txikiagokoak ere badaude, baina Bergararako proposenak neurri horietakoak direla uste dute; betiere, "zerbitzua hasten denean ikusi beharko da, posible da- eta tokiren baten txikiagoa behar izatea".

Ilido beretik, edukiontzia non kokatuko diren ere zehaztuta dago, hala ere, kokapen hori behin-behinekoa baino ez da alka- teak azaldu duenez: "Gerta dai- teke edukiontzia jarri eta arrazoi bategatik edo besteagatik kendu behar izana. Edo jarri ez eta edu- kiontzia jartzeko beharra ikustea. Dagoeneko eginda dago 119 edu- kiontzien banaketa, baina zerbi- tzua abian jarri eta orduan hasi- ko gara ikusten banaketa guztiz zuzena izan den edo aldaketa beharrik dagoen".

Kokapen horri dagokionez, ia kasu gehienetan, orain arte zabo- rra uzteko erabiltzen genituen B/Z guneak bere horretan utzi-

ko dituzte, metro gutxi batzuetako gorabeherak egon daitezkeen arren.

87 MILIOI PEZETA URTERO

Zerbitzu hori aurrera eramateko, FCC (Fomento de Construcciones y Contratas) enpresa azpikon- tratatu du Debagoieneko Man- komunitateak, eta enpresa hori arduratuko da edukiontzia hus- tu, garbi eduki eta mantentzeaz. Kontratazioa zortzi urterako egin dute.

Bergarako Udalaren kasuan, 87 milioi pezetako aurrekontua

izango du, urtero, zaborrenda- ko edukiontzia zerbitzu berriak, orain arteko sistemarekin alde- ratuta, urteko 32 milioi pezeta garestiagoa.

Aurrekontua dela eta, Victo- riano Gallastegi alkateak esan duenez, esfortzu ekonomikoa eka- rriko dio Udalari, baina argi du zerbitzua onerako izango dela, eta Mankomunitatean ere edukion- tzi zerbitzuaren aldeko apustua egin duela gehitu du. Eta ekarri- ko duen esfortzu ekonomikoa dela eta, herritarrei eskatu nahi die zerbitzua egoki erabiltzeko.

Zerbitzu garbiagoa

Maiztasun horrekin hustuko ditu Fomento de Construcciones y Contratas enpresak edukiontzia. Erabiltzaileok ez dugu zaborra ateratzeko egunik ez ordurik izango, eta FCCk astean hirutan jasoko du zaborra, gaez beti. Zerbitzua osoagoa eta, era berean, garbiagoa izateko, zaborraren edukiontzia hustuko dituen kamioiaren ostean, langile talde batek kanpoan egon daitezkeen zabor poltsak jasotzeko ardura izango du.

Horrez guztiaz gain, hilean behin garbiketa sakona egingo diete edukiontziei, eta urtean birritan enpresa arduradunak edukiontzia hartu eta eraman egingo ditu garbiketa berezia egiteko. Bestalde, edukiontzien mantentze lanez mekaniko espezialista bat arduratuko da.

Zerbitzu egoki eta garbia izateko bidean, herritarrek aipatu ditu Gallastegi alkateak, "zaborra edukiontzia barrura botatzera ohitzeko esfortzua guztiok egin beharko dugu-eta".

Bestalde, lur azpiko zabor biltza sistema ere aztertu dute Mankomunitatean, baina albo batera utzi dute zikinagoa delako alkatearen esanetan.

LABUR

Batzokiko fatxada pinturaz zikindu zuten ezezagun batzuek martitzen goizaldean

Astelehen gau eta martitzen goizaldea bitartean, ezezagun batzuek Batzokiko fatxada zikindu egin zuten pintura hori eta gorriz.

Pinturak Batzokiko sarrera eta etxearen fatxada zikindu zituen. Udaleko langileek eguazten eguerdian garbitu zituzten pin- tura arrastook.

Gallastegi alkatearen esanetan, "lotsagarria da horrelako gau- za bat gertatzea. Edozein lekutan da lotsagarria, baina are gehia- go ondare historikoa den etxe baten, kontuan izanda, gainera, Uda- lak zenbat diru gastatzen duen horrelakoak zaintzen".

Eguneratze asmoz, 2001eko biztanleriaren eta etxebizitzaren erroldak egiten ari dira

Espainiako Estadistika Erakundea (INE) 2001eko biztanleriaren eta etxebizitzaren erroldak egiten ari da. Horretarako, Euskal Esta- tistika Erakundearen laguntza du, eta Bergararen kasuan hama- bi lagunek dihardute, etxez etxe, erroldako datu horiek egunera- tzen, azkenak duela hamar urtekoak dira-eta. Aste honetan hasi dira eta abenduaren 28an amaituko dute lana.

Errolda agente horiek egiaztagiria daramate, INEMeko lan- gileak direla egiaztatze. Garrantzitsua da etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak erroldako datuen orrian jasota daudela ziurta- tzea.

Erroldako datuen orria nor bere datu inprimatuekin etxean jasoz gero, galdera sortak internet bidez erantzun daitezke helbi- de honetan: censos2001.es, abenduaren 9a baino lehen.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako sinadura batzea San Martin plazan eta Angiozarren

"AHT Gelditu! Elkarlana" taldeak antolatu du. Asteburuan mahaia jarriko dute San Martin plazan eta Angiozarren sinadurak jaso- eta Bruselara bidaltzeko. Helburua da "AHT Gelditu! Elkarlana" taldeak eta hamalau udalek uztailen Bruselara bidalitako kexua indartzea. Bruselan bederatzi hilabete izango dituzte kexua azter- tu eta onartu edo atzera botatzeko. Gauzak horrela, "AHT Geli- tu! Elkarlana" taldeak ahalik eta sinadura gehien batu nahi ditu, Bruselara bidali eta kexuari pisu handiagoa emateko.

Sinadurak toki eta egun hauetan jasoko dituzte: San Martin plazan zapatu eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Angiozarren, berriz, domekan bakarrik jarriko dute mahaia, 12:00etatik 14:00etara.



'Goienkaria'ko herri edizioen aurkezpena

Joan den egubakoitzean izan zen, Hotel Mondragonen. Jende ugari gerturatu zen: politika, kultura, euskara zein beste hain- bat arlotako ordezkariak. Argazkian, Lore Leanizbarrutia (argazkian), Gipuzkoako Diputazioko Euskara zuzendaria. Hauek ere izan ziren han, besteak beste: Antton Carrere, Iña- ki Galdos, Xabier Zubizarreta eta Angel Bergaretxe.

ELKARRIZKETA

LUIS IGNACIO DOMÍNGUEZ/HILERRIKO LANGILEA

“Gaizkien, hildakoen senitartekoak sufritzen ikustean pasatzen dut”

MONIKA BELASTEGI

Hilaren lean, jende ugari gerturatuko da hilerrira. Batzuek urtean hilerrira egiten duten bisita bakarra da, hala ere, nahiko hilerrizaleak ei gara bergararrak. Hala esan digu, behintzat, Luisi lurperatzaileak.

Datorren astean Domu Santu Eguna izanda, hasi da jende mugimendua igartzen?

Aurten ez dakit zer gertatzen ari den, martitzena da eta oraindik ez da jende mugimendurik igartzen. Baina laster hasiko da. **Domu Santu Eguna izan barik, jendeak etortzeko ohiturarik badauka?**

Urte osoan etortzen da jendea, parke bat balitz bezala. Inguruko herrietako hilerriekin alderatuta, jende ugari etortzen da, egunero 150 lagun inguru: batzuk otoitz egitera, beste batzuk senitarteko eta lagunak ikustera, garbitzera, loreak ureztatzen...

Zergatik du horrelako arrakasta Bergarako hilerrriak?

Herri barruan egoteak garrantzi handia du. Jendea ikustera ohitu da eta beldurra galdu du. Seguru nago Poligonoan hilerrria kendu edo mantentzearen aldeko erreferenduma egingo balitz, mantentzearen aldekoak gehiago izango lirätekeela.

Zergatik?


Jendea ohituta dagoelako. Gainera, hainbat hobekuntza egingo dira. Hezurak erretzeko sistema gaizki zegoen, baina errausketa-labea jarriko dute, baita kapera konpondu ere. Badabiltza dagoeneko.

Familiatik datorkizu lan honetarako zaletasuna?

Ez dakit, baina aitona eta aitak lan honetan jardun zuten.

Zenbat urte daramatzazu?

Ofizialki, hogeita bat, baina txikitik aitari laguntzen nion, hamabi urterekin-edo. Eskolatik irten eta hona etortzen nintzen.



MONIKA BELASTEGI

“Ehun eta berrogeita hamar pertsona inguru etortzen dira hilerrira egunero”


Inoiz izan diozu erreparorik lan honi?

Ez, oso txikitik ohitu nintzelako. Batzuk lantegira doazen moduan, ni hona. Gaizkien, senitartekoak sufritzen ikusten ditudanean pasatzen dut. Horretara ez naiz ohitu.

“Gero eta jende gehiagok eskatzen du erraustua izatea lurperatua baino”

Guztiondako tokirik izango dugu hilerrri honetan?

Orain, leku handia daukagu, lekua berreskuratzen ari gara. Azken urteotan lehen baino jende gehiago hiltzen da, baina portzioan, gehiago dira erraustuak izatea aukeratzen dutenak.



MONIKA BELASTEGI

Duela hiru aste hasi ziren Zubiaurreko tunela egiten, eta 16 metro zulatu dituzte.

Hasi dira Zubiaurreko tunela egiten Ekialdeko saihebidetan

MONIKA BELASTEGI

Ekialdeko saihebidetako lanak aurrera doaz. Zubiaurreko tunela ere duela hiru aste hasi ziren egiten. Dagoneko hamasei metro zulatu dituzte, Miguel Angel Muñoz obren zuzendariaren esanetan. Egunean hiru edo lau metro aurrera egin dute, eta datorren astetik aurrera, sei edo zazpi metro zulatuko dituzte. Horretarako, egunero bi edo hiru leherketa egingo dituzte.

GABONETARAKO GUZTIA ZULATUTA

Tunelak 320 metro izango ditu, sei metroko erradioa, eta guztira 25.000 m³ lur eta harri aterako

dute. Miguel Angel Muñozen esanetan, Gabonetarako aldenik alden egongo da zulatuta. Horren ondoren, beste bi edo hiru hila-bete emango dituzte tunel barrua apurtzen.

Esan bezala, Zubiaurreko tunela Ekialdeko saihebidetaren parte da. 2,1 kilometroko enborra izango du, Oruesagasti baserrian hasi eta Teileriaraino. Horri, Oruesagasti eta Teileriaraino lotu-keen 1,2 kilometroak gehitu behar zaizkio. Bide azkarrek duten tratatu eta ezaugarriak izango ditu: bi karril eta bide bazter zabalak. Lanen aurrekontua 2.600.000.000 pezetakoa da, eta 2002ko iraile- rako amaitzea aurrez ikusi dute.

LABUR

Bergara eta Eibar lotuko dituen autobide zatia datorren irailean irekiko dute

Bergara eta Eibar arteko bidea autobidez egiteko aukera izango da datorren urtetik aurrera. Halaxe dio, behintzat, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailak kaleratutako txostenak.

Txostenak dioenez, Eibar-Gasteiz autobidetako lanak martxa onean doaz, eta aurrez jarritako epeak bete egingo dira. Hori horrela, Bergara eta Eibar lotuko dituen autobide zatia datorren urteko irailean zabalduko dute ibilgailuendako. Horrez gain, Elorregi eta Bergara arteko zatia 2004. urteko maiatzean bukatuta egongo ei da, eta, bestalde, Elorregi eta Arrasate artekoa, urte bereko abuzturako.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

BERGARAN BULEGO BERRIA



BERGARA Ibarrai 3. 943 76 97 97
LEGAZPI Santikutz 8. 943 73 05 25

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA. Tf. 943 76 23 79


GAZTAINA ERREEN USAINA

Joan den astean jarri zuten Irala kalean gaztaina erre postua. Gustavo Ocampo kolonbiarra izango dugu aurtengo saltzailea. Urtero jarri ohi dute, baina aurten, sekula baino lehenago hasi dira gaztainak saltzen. Gaztainen usainak hotz, udazken edo negu usaina ekarri digu oraingo astean Iralatik pasatu garenoi. Urtarrilera arte egongo da gaztaina erre postua, arratsaldero.



810 GRAMOKO ONDDOA!

Horixe markatzen zuen pisuak Eusebiok onddoa gainean jarri zuenean. Tortilla makala egin daiteke tamaina horretako onddo batekin! Perretxiko biltzaile bati onddoa non aurkitu duen galdetzea ez da erraza, baina Araba aldean topatu zuela, behintzat, jakin ahal izan dugu. Euri gutxi egin duela eta perretxiko gutxi dagoela esaten ari diren bitartean, Eusebio, behinik behin, fin ibili da. Horra hor, Arantxa amaztea eta biak. Joan den astean, bi metroko patata sustraiak; oraingo astean, 800 gramoko onddoa; zer ekarriko ote digute datorren astean?

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 10 57

Bergarako Udala

Bergarako udalak obra eta zerbitzuetako brigadarako langilea kontratatu behar du lehiaketa- oposizio bidez eta behin-behineko lan kontratuarekin. Kontratuaren iraupena, gutxi gora behera 2005eko irailaren 20ra arte izango da.



Lehiakideen baldintzak

-Eskola graduatua, lanbide hezkuntza I edo pareko titulazio maila izatea.
-Langabezian egotea eta dagokion bulegoan izena emanda egotea kontratua sinatu aurreko egunetan.

Instantziak

-Instantziak aurkezteko epea 2001eko azaroaren 10ean, 13:30etan bukatuko da.

Oinarriak idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2001eko urriaren 19an.



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



Simon Arrieta plaza 2A behean ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

SAN MIGUEL zapatua, urriak 27, 00:00etatik 03:00etara bitartean
jaia Eskatu bat eta... bi edan

eta...

AZAROAREN 3an zozketa egingo dugu Jam aretoan hilaren 16an Him taldeak egingo duen kontzerturako sarrerak lortzeko! Hator!

Bergarako Udala

Bergarako Udalak, Enplegu sailetik informatika ikastaroa eskainiko du.



Arloak: Windows eta Microsoft Word hasiera.

-Partaide guztiak derrigorez "teklatura" ezagutu behar dute ikastaroa hasi aurretik. Horretarako hasieran 10 orduko Mekanografiako saioa eskainiko da.
-12 pertsona talde bakoitzeko.
-Lehenengo ikastaroa azaroak 13tik abenduak 18ra bitartean eskainiko da.
-Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera, goizez 9retatik 11etara bitartean.
-Matrikula: izena ematerakoan zehaztuko den kontu korrontean 5.000 ptako diru-sarrera egin beharko da.

Izena emateko epea eta tokia

Urriak 29tik azaroak 9ra bitartean, goizeko 9retatik 13etara, Udaletxeko Ongizateko enplegu sailean.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

BERGARARRAK MUNDUAN

ROSA ZAFRA

32 URTE / JATETXEKO ARDURADUNA / AUSTRALIA

“Familia eta lagunez gain, zapatu goizetako marianito poteoen falta nabari dut”

AINZANE IRIZAR

Ia lau urte dira Rosa ez dela Bergarara etorri. Inglaterra pasatu zituen bi urte, eta beste horrenbeste badira Australian bizi denetik. Jatetxe bateko arduraduna da. Bere mutil laguna hango da, eta horrexegatik joan zen Australiara. “Erronka oso handia zen niretako hona etortzea: etxetik, familiarengandik eta lagunengandik milaka kilometrora eta herrialde hain ezberdin batean bizitzeko, eta hona egokitzeko gai naizela ikusi ahal izan dut”.

Etxetik hain urruti egotea eta “moralez baxu zabiltzanean amarengana korrika joateko aukerarik ez duzula izango jakitea da gogorrena”, Rosaren esanetan.

“Australiarrak oso jatorrak dira”, diosku Rosak, baina bitxi samarrak ere ba omen dira; izugarri harritu zuen asko oinutsik ibiltzen zirela ikusteak: “neuk ere frogatu egin behar nuela erabaki nuen, eta behin oinutsik ateratu nintzen, baina lehenengo eta azkenengo aldia izan zen”.

Australiako bizilagunen erdia kanpotarrak dira, eta horrek kultura eta ohitura ezberdin asko ezagutzeko au-



kera eman dio Rosari. Gehienbat asiarrak ezagutu ditu, eta oso esperientzia polita izan da euren kultura gertutik ezagutu ahal izatea.

Esan bezala, familiaren eta lagunengandik falta somatzen du gehienbat, baina beste gauza asko ere faltan botatzen ei ditu:

Lau urte eta gero, datorren urteko apirilean etorriko da Rosa Bergarara lehen aldiz

“zapatu goizetako marianito poteoa, pintxoak, baserriko ogia Idiazabalgo gaztarekin...edozer emango nuke horiek guztiak hemen edukitzeagatik”.

Oraingoan, ez dauka Bergarara bizitzera etortzeko asmorik, baina datorren urteko apirilean egingo digu bisitaxo bat, bere ilobaren bataiora etorriko da-eta. Amorratzen dago, lau urte eta gero, lehenengo aldiz etorriko da-eta Bergarara.

MINGAINARITIRAKA



Shandy Lamont

LA PUERTA AL INGLES AKADEMIAKO

Orain dala lau bat urte etorri zan Shandy Bergarara. Surafrikakua da, baiña Eskozian bizi izan zan. Magisteritza ikasi zeban, eta etorri zanetik ingeleseko irakasle dabil lanian.

Zelatan etorri ziñan Bergarara?

Eskozian bizi nitzan, eta zerbait diferentia egin nahi neban bizitzan. Hona etortzeko aukeria euki neban, eta horrelaxe etorri nitzan.

Zerek harritu zintuen?

Ez neban espero hainbeste menditu topatzia; bestetik, hemengo etxekin harrittu nitzan, jende dana pisuetan bizi da.

Ondo hartu zaitue bergararrek?

Hemen urtebete pasatzeko asmuakin etorri nitzan, eta lau urte daroiat, beraz...

Surafrikatik zer ekarriko ziñuke?

Hango espaziua; han, dana zabalagua da, espazio gehixago dago.

Eta Bergaratik hara?

Hemengo poteuak eta bizitza soziala; han jendiak ez dauka elkarrekin hainbeste harreman.

Zure lanian ze gustatzen jatxu gehixen?

Fabriketan eskolak emotia; ikasle horrek motibazio haundixagua dauke.

Eta gutxien?

Ordutegia; izan be, egun osua emoten dogu eskolan edo horretan pentsatzen.

Zela defniduko ziñuke zeure burua?

Irekixa, pixkat lotsatixa eta alaixa naiz.

Denbora librian zer egitten dozu?

Mendira jun, bizikletan ibili, irakurri, zinera jun, lagunekin egon...

Euskal Herriko mendi bat?

Anboto eta Aizkorri asko gustatzen jat.

Bukatzeo, amets bat?

Oraingoan gustura nago hemen, baiña etorkizunian, egunen baten, Hego Afrikara bueltatzia nahiko nuke, gustuko lan bat topau eta hantxe bizitzia.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Edu Jauregi

AUSTRALIA / 1990eko abuztua

Betidanik zeukan gogo Australiara joateko, eta 1990ean gauzatu zuen bere ametsetako bat Edu Jauregik. Luciano anaiarekin batera joan zen, antolatutako bidaia baten: “Katalanak, madrildarrak eta euskaldunak joan ginen, 15 laguneko taldea, eta 9.000 kilometro egin genituen Australian, autobusez”.

Australia iberiar penintsula baino hamar aldiz handiagoa ei da eta biztanleria gehiena ekialdean bizi da.

Hego-ekialdean daude, hain zuzen, Sidney eta Melbourne, hiri garrantzitsuenak: “Hego-ekialdetik hasi eta ipar-ekialdera jo genuen, Queensland eskualdetik. Han daude hondartzarik ikusgarrienak, surflariendako paradisua. Bestalde, Australia hegoaldeko hemisferioan dagoenez, klima hemengoaren kontrako da: hegoaldean eguraldi txarra eta iparraldean bero. Kantzer tropikoa zeharkatu genuen iparraldera bidean”.

Australiako koralezko arrezifeak ere famatuak dira: “Arrezifeko uharteak zoragarriak dira, eta han tiburoiak topatzea zailago da, itsasoak ez duelako sakontasun handirik”. Daintree River parke nazionala eta Mount Isa meatze-herria bisitatu zituzten: “Mount Isan ez zegoen emakumerik, denak meatzariak ziren. Harriztekoa zen”.

Australia barrualdean Ayes Rock famatua ikusi zuten: “300 metrotik gorako altuera eta bederatzi kilometroko perimetroa duen monolitoa da, munduko bigarren handiena. Basamortu erdian dago eta jatorria ez da ezagutzen. Aborigenentzat harri sakratua da”. Beste altxor batekin ere topo egin zuten: “Queensland-eko erreka baten ornitorrinkoa ikusteko aukera izan genuen. Oso espezie bitxia da, eta txundituta geratu nintzen”. Natura aldetik Australiak duen aberastasuna azpimarratuko luke Eduk.



“Ayes Rock monolito erraldoia sakratua da hangoendako”

“Txundituta geratu nintzen ornitorrinkoa ikustean”

EDU MENDIBIL



Edu eta Luciano Jauregi Ayes Rock monolitoa atzean dutela.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57



1929az geroztik zure zerbitzura

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

ESKUBALOIA

Lezon galdu arren, sailkapeneko lehen postuan da senior mailako taldea

Edu Orgazen taldeak domeka goizean Urolaren aurka jokatu du Labegaraietako Kirolegian

EDU MENDIBIL

Bergarako senior mailako eskubaloia taldea lehen maila territorialeko lehen postuan da, Aierru eta Hegialde taldeen berdinduta. Joan zen astebukaeran Edu Orgazen mutilek aurtengo lehen partidua galdu zuten Lezon, Aierruren aurka (33-29).

Senior taldea indartsu hasi da ligan. Lehenbiziko lau partiduak jarraian irabazi dituzte, etxetik kanpo Arrate eta Tolosa taldeen aurka, eta Labegaraietan Donibane eta Beasainen kontra. Aurreko astebukaeran, berriz, ezin izan zuten punturik eskuratu Lezon: partidu ona egin arren, Edu Orgazek entrenatzen duen taldeak 33-29 emaitzarekin galdu zuen Aierruren aurka. Aierruk eta Legazpiko Hegialdek ere partidu bakarra galdu dute orain arte eta Bergararekin batera sailkapeneko lehen tokian dira. Hala ere, *gol-averagea* alde dutenez, mahone-roek lehen postuari eutsi diote.

PARTIDU ZAILA DOMEKAN

Esan bezala, Bergarak Urolaren aurka jokatu du domeka goizean Labegaraietan. Joan zen denboraldian zumarragarrak bigarren maila nazionalean aritu ziren, eta Orgazen ustez ez da erraza izango garaipena eskura-



EDU MENDIBIL

Senior eskubaloia taldeak partidu bakarra galdu du orain arte.

tzea: "itxura batean Urolak ez dauka talde indartsurik, baina edozeini irabazteko gai direla erakutsi dute. Azken batean, Beasain eta Arrasateko bigarren taldea kenduta, berdintasuna da nagusi ligan eta beraz kontu handiz ibi-

li beharko gara domekan ez galtzeko".

Bere taldeari dagokionez, hasiera bikaina izan duela dio Eduk: "egia esateko, ondo hastea espero genuen, baina sorpresa atsegina izan da lau partidu

jarraian irabaztea. Aurreko astebukaeran, berriz, ez genuen zortetik izan Lezon eta esku hutsik bueltatu ginen. Zuzeneko arerioei etxetik kanpo irabaztea oso zaila da, eta liga bestelako partiduetan erabaki daiteke. Partidu

errazetan hutsik ez egitea oso inportantea izango da. Hemendik bi astera, azaroaren 10ean, Hegialderen aurka jokatu dugu Legazpin, eta ea partidua irabaztea lortzen dugun. Taldea ondo ikusten dut eta jokalarientzat oso inportantea litzateke Legazpin irabaztea. Ikusiko dugu zer gertatzen den. Bien bitartean, partiduz partidu joango gara, ahalik eta puntu gehienak lortzen".

Mahoneroen entrenatzailea bigarren denboraldia betetzen ari da senior taldearekin, eta itxaropentsu dago: "plantila motza izan arren, sailkapeneko goialdean egoteko moduko taldea daukagu".

ZALEEN LAGUNTZA EZINBESTEKOA

Edu Orgazek faltan botatzen du zaleen laguntza: "oso jende gutxi etortzen da gure partiduak ikustera, eta pena da zaleen berotasuna ez izatea, batez ere etxeko partiduetan, Labegaraietan. Askotan kanpotik etorritako zale gehiago izaten dira Bergarakoak baino. Herriko zaleei taldea animatzera etortzeko eskatu nahi nieke, giroa pixka bat berotzeko".

Domekako partiduari dagokionez, jokalariek guztiak jokatzeko moduan dira. Garikoitz Arregi laterala da erdi lesionatuta dagoen bakarra. Hala ere, entrenatzailearen ustetan jokatu ahal izango du domekan.

Lehen erregionaleko futbol taldeak Kilimon izango du bisitari zapatuan

EDU MENDIBIL

Bergara eta Kilimon futbol taldeak aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Agorrosingo futbol zelaian, 16:00etan. Karlos Lasaren taldeak aukera ezin hobea dauka hiru puntuak eskuratzeko.

Kilimon taldea sailkapeneko azken tokian dago, puntu bakar batekin. Bost partidu galdu eta bakarra berdindu dute Mendarokoek. Mahoneroak, aldiz, 12. postuan daude (16 talde dira lehen erregionaleko bigarren multzoan), 4 punturekin, eta bihar euren bigarren garaipena lortzeko asmotan dira. Aurreko astean ustekabeko gol zaparrada jaso zuten Arrasaten: Mondragon 5-0eko emaitzarekin nagusitu zitzaion Bergarari Atxabalpen.

Bergarak bost partidu jokatu ditu orain arte: horietatik bakarra irabazi, beste bat ber-



Preferente taldeak ez du bere zaleen aurrean oraindik partidurik irabazi.

E.M.

dindu eta gainerako hirurak galdu egin dituzte.

PREFERENTEA GAIZKI AGORROSINEN

Bestalde, preferente mailako taldeak husna berdindu zuen zapatuan Oiztunen aurka. Etxeko-

ek ez zuten partidu onik egin. Juanina Garairen taldeak ez du oraindik etxean partidurik irabazi. Aurtengo denboraldian irabazitako bi partiduak etxetik kanpo izan dira, Urola eta Hernani taldeen aurka hain zuzen.

Egubakoitzean eta zapatuan partiduak Udal Pilotalekuan

E.M.

Bergara K.E. pilotariak Gipuzkoako txapelketan ari dira. Gaur, egubakoitza, partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30etik aurrera. Zapatu eguerdian, berriz, gaztekoen txanda helduko da.

Kadete, gazte eta senior mailako bikoteek partiduak izango dituzte gaur, egubakoitza, 19:30etik aurrera Udal Pilotalekuan. Kadeteetan, Mikel Salegi eta Urdin Alberdi bergararrek Azpeitiko Ilunpe taldeko pilotarien aurka jokatu dute. Orain arte Salegik Ibai Altunarekin jokatu izan du, baina Altuna erdi lesionatuta dago. Beraz, Alberdi izango da Altunaren ordezkoa gaur.

Gazte mailan, Beñat Iñarrak eta Asier Larrañagak Billabonako Bearsana taldeko pilotarien kontra neurtuko dituzte indarrak eta, azkenik, senior mailako partiduan Bergara eta Intxau-

rondoko bikoteak izango dira aurrez aurre. Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek osatuko dute Bergarako bikotea.

Reyes Azkoitia entrenatzailearen arabera, "gazte eta senior mailako bikoteek daukate aukera gehien final laurdenetarako sailkatzeko. Kadeteek, berriz, oso zaila daukate, hiru partidu galdu eta bakarra irabazi dutelako orain arte".

INFANTILAK ZAPATU EGUERDIAN

Zapatuan infantil mailako bi partidu jokatu dira Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Markel eta Oier Aldai anaiek Antzuolako Olalde taldeko bikotearen kontra jokatu dute. Aldai anaiekin batera Antxon Hernandez ari da Gipuzkoako txapelketan parte hartzen. Jarraian, Jon Larrañagak eta Mikel Oregik osatzen duten bikoteak Oñatiko Aloña Mendi taldekoaren aurka jokatu du. Jokin Oregi dugu Larrañaga eta Oregiren taldekidea aurtzen.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA	
Amilotx-Agirrebeña	3-9
Eri-Torrekua	4-5
Bar Ganbara-Biciprec. Igartua	5-5
Kanpazar Harrobia-A Ze Flaxa	3-5
Komando Piperrak-Mongatxurak	2-7
B MULTZOA	
Artekale pizzeria-Vacalouras	3-4
Aterpe-Bar Bedarreta	4-8
Aterpe-Txipiron	8-2
Irubide-Bar Bedarreta	0-3
Etengabe-Bar Canalejas	1-12
T.H.T.-Amoskibar	6-6
C MULTZOA	
Ortzi-Patxaran Team	3-0
Bayer-Aluminios Kresala	11-2
Dedo Pafarru-Pagomendi	3-2
Dedo Pafarru-Alum. Kresala	3-3
Bayer-Ortzi	6-2
Timofonika Team-Bildurbarek	5-15
Pagomendi-Patxaran Team	5-2

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. A Ze Flaxa	12	4	
2. Agirrebeña jatetxea	10	4	
3. Torrekua	8	5	
4. Mongatxurak	7	5	
5. Bar Ugarte	6	4	
6. Kanpazar Harrobia	6	5	
7. Komando Piperrak	5	5	
8. Eri	4	5	
9. Biciprecisión Igartua	4	5	
10. Amilotx	4	4	
11. Bar Ganbara	1	4	
B MULTZOA		P	J
1. Bar Bedarreta	12	4	
2. Bar Canalejas	10	5	
3. Vacalouras	10	5	
4. Amoskibar	9	5	
5. Aterpe	9	4	
6. Irubide jatetxea	8	5	
7. T.H.T	4	4	
8. Artekale pizzeria	3	5	
9. Etengabe	0	5	
10. Txipiron	-3	4	
C MULTZOA		P	J
1. Dedo Pafarru	10	5	
2. Errotagain	9	3	
3. Bayer	9	4	
4. Pagomendi	9	5	
5. Artusamak	6	3	
6. Bildurbarek Opel Lam	6	5	
7. Aluminios Kresala	4	4	
8. Ortzi	3	3	
9. Patxaran Team	3	5	
10. Timofonika Team	0	4	

PARTIDUAK

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Bar Bedarreta-Txipiron. **Antolaketa**
 10:30: A Ze Flaxa-Amilotx. **Antolaketa**
 11:30: Patxaran T.-Artusamak. **Antolaketa**
 12:30: Amoskibar-Aterpe. **Antolaketa**
 16:00: Artekale pizzeria-Etengabe. **Bayer**
 17:00: Bildurbarek-Bayer. **Agirrebeña**
 18:00: Bayer-Ortzi. **Timofonika Team**
 19:00: Bar Ugarte-K. Piperrak. **Bar Ganbara**
DOMEKAN, BARRUAN
 16:00: Errotagain-Timofonika. **T.H.T.**
 17:00: Bar Canalejas-T.H.T. **Alum. Kresala**
 18:00: Al. Kresala-Pagomendi. **Mongatxur.**
 19:00: Mongatxurak-Torrekua. **Ortzi**
 20:00: Ortzi-Dedo Pafarru. **Torrekua**

ARGI IBILI!

HURRENGO ASTEBUKAERAN ATSEDENA

Labegaraietako txapelketan ari diren 31 taldeek dagoeneko bost jardunaldi izan dituzte, nahiz eta hainbat taldek partidu gutxiago jokatu duten. Oraingo astebukaeran 13 partidu izango dira Kiroldegian. Datorren astean, berriz, ez da partidurik izango azaroren 1eko zubia dela eta.

PATXARAN TEAM TALDEAK HIRU PUNTU GUTXIAGO

Antolaketa Batzordeak hiru puntu kendu dizkio Patxaran Team taldeari Alain Gonzalez jokariak fitxar barik jokatu zuelako Ortziaren kontrako partidua. Era berean, aipatutako partidua galdutzat eman zaio (3-0). Bestalde, A Ze Flaxa taldeko Josue Lazkano jokariak bi partiduko zigorra bete beharko du.

GORA ETA BEHERA

- BAYER ETA BAR BEDARRETA**
Bi taldeek bina partidu jokatu zituzten joan zen astebukaeran, eta garaile atera ziren. Bayerrek Aluminios Kresala (11-2) eta Ortzi (6-2) taldeei irabazi zien eta Bar Bedarretak, berriz, Irubideri (3-0) eta Aterperi (8-4).
- TIMOFONIKA TEAM ETA AMILOTX**
Timofonika Team taldeak 5-15 emaitzarekin galdu zuen Bildurbarek taldearen aurka eta C multzoa azken tokian dago, puntu barik. Amilotxek ere erraz galdu zuen Agirrebeñaren aurka (3-9) eta A multzoan 10. tokian dago.

GAINBEGIRADA

PILOTA

Pala txapelketa Angiozarko Arbiaska pilotalekuan azaroren 10etik aurrera

Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango den pala txapelketa jokatu da Angiozarren azaroren 10etik aurrera. Partiduak zapatu arratsaldeetan izango dira. Izena emateko epea azaroren 7ra arte izango da zabalik Udal Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67).

ATLETISMOA

Behobia-Donostia lasterketa probarako izena ematea azaroren 3ra arte zabalik

Behobia-Donostia lasterketa azaroren 11n jokatu da. Parte hartzeko interesa dutenek 2.500 pezeta ordaindu beharko dute. Proban eraman beharko duten txipa itzultzean 500 pezeta itzuliko zaie. Izena ematea Lazkano oinetako dendan egin daiteke azaroren 3ra arte.

GOLF

Golf ikastaroak azaroan Urturin Debagoieneko kirol zerbitzuen eskutik

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatutako golf ikastaroak eskainiko dira azaroan Urturiko golf eskolan, Araban. Hastapen ikastaroa azaroren 10ean eta 11n izango da eta hobekuntza mailakoa azaroren 17an eta 18an. Argibideak Udal Kirol Zerbitzuan.

SASKIBALOIA

Begarako senior taldeak Urola hartuko du domeka eguerdian Labegaraietako Kiroldegian

Begarako senior mutilen saskibaloia taldeak Urolaren aurka jokatuko du domekan, 12:15ean, Kiroldegian. Bestalde, kadete mutilen taldeak Loiolaren aurka neurtuko ditu indarrak domekan bertan, Mariaren Lagundiko kantxan, 11:00etan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Kilimon
Lehen erregionala. Zapatua. 16:00. Agorrosin.
Bergara-Beasain
Ohorezko mailako gazteak. Zapatua. 17:45. Ipintza.
Bergara-Ilintxa
Neskak. Domeka. 11:00. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Urola
Senior mutilak. Domeka. 10:30. Kiroldegia.

SASKIBALOIA

Bergara-Legazpia
Kadete mutilak. Domeka. 11:00. Mariaren Lagundia.
Bergara-Loiola
Senior mutilak. Domeka. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

Bergara-Ilunpe (bigarren mailako kadeteak)
Bergara-Bearsana (bigarren mailako gazteak)
Bergara-Intxaurren (lehen mailako seniorrak)
 Egubakoitza. 19:30. Udal Pilotalekua.
Bergara 2-Olaide (infantilak)
Bergara 1-Aloña Mendi (infantilak)
 Zapatua. 12:30. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 0 Oartzun 0 (Preferente maila)
Mondragon 5 Bergara 0 (Lehen erregionala)
Elgoibar 4 Bergara 0 (Neskak)
San Martzial 0 Bergara 0 (Ohorezko m., gazteak)
Bergara 3 Soraluze 3 (Lehen mailako gazteak)
Bergara 1 Antiguoko 6 (Ohorezko m. kadeteak)
Bergara 1 Amaikak Bat 3 (2. mailako kadeteak)
Bergara 8 Billabona 1 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Aiuru 33 Bergara 29 (Senior mutilak)
Bergara 25 Hondarrabia 27 (Gazte mutilak)
Bergara 28 Leitzaran 17 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA

Legazpia 25 Bergara 71 (Gazte mutilak)

PILOTA

Txapagain 22 Bergara 11 (Kadeteak)
Elgoibar 22 Bergara 3 (Gazteak)
Bergara 22 Loiolatarra 16 (Senior banakoa)
Bergara 22 Ilunpe 12 (2. mailako seniorrak)
Añorga 22 Bergara 8 (lehen mailako seniorrak)

JOKOZKANPO

Fermin Hernandez

KORRIKALARI HERRIKOIA

Behobia Txiki lasterketa jokatu da zapatuan, hilak 27, 10:30ean Agorrosinen. Antolatzaile-etako bat dugu Fermin.

Zein da Behobia Txiki lasterketaren helburua?

Lasterketan biltzen garen gehienok azaroan jokatzen den Behobia-Donostia proban parte hartzen dugu. Beraz entrenamendu gisa da guretzat, jendeak distantzia luzeak korritzeari beldurrik ez izateko. Bergara eta Soraluze bitarteko distantzia egiten dugu, 15 kilometro guztira, baina oso erritmo lasaian.

Partaidetzak gora egin du urtetik urtera.

Horrela da. Iaz 90 lagun inguru izan ginen eta aurtengoa ere antzeko partaidetza lortzea espero dugu. Neskak ere gero eta gehiago datoz. Ez dago izena eman beharrik: 10:30ean irteera puntuan, Agorrosinen egotea nahiko da. Proba bukatutakoan lagunarteko bazkaria egingo dugu. Laguntza ematen diguten guztiei esker eman nahi dizkiegu. **Diego Garcia zena omen-duko duzue aurtengoa.**

Bai. Euskal Herriko atletarik onenetakoa izan da eta martxoan hil zenez, aurtengo ekitaldia bere oroimenez izatea nahi izan dugu hor ibiltzen garenok.



JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 BERGARA
943 76 20 49
Zubillaga 10 ONATI
943 78 24 13

EGUREN
PINTURAK
Pintatze lanak orokorrean
Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



Ehun eta hogeit lagunek osatzen dute Orfeon Pamplones. Irudiaren erdian Alfonso C. Huarte, abesbatzaren zuzendaria.

Musika korala Udazken Kulturalako egitarauaren barruan

Orfeon Pamplones San Pedro parrokian zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Iruñetik etorrita, Orfeon Pamplones-ek kontzertua eskainiko du San Pedro parrokian bihar, zapatua, 20:00etan. Emanaldia doan izango da. Nafarroako taldearen emanaldiak bi atal izango ditu, eta organoaren eta bakarlariaren laguntza.

Musika korala gustuko dutenek belarriak gozatzeko aukera aparta izango dute bihar, zapatua, Orfeon Pamplones-ek kontzertua emango du-eta San Pedro parrokian.

Orfeon Pamplones tradizio handiko taldea da. Conrado García sortu zuen 1865ean, eta hasierako urteetan, Julian Gayarre orfeoiko kideetako bat izan zen. 1872ko Gerra Karlistarekin batera, taldea banatu egin zen. Harrezkero birritan saiatu arren, ezin izan zuten koroa berriz martxan jarri 1892. urtera arte. Urte hartan, Remigio Muxikak berregin zuen Orfeon Pamplones.

Gaur egun ezagutzen dugun orfeoiak 100. urteurrena egin zuen 1992an, eta ondorioz, Nafarroako Gobernuak Kultura Sailak Principe de Viana saria jaso zuen.

INTERPRETAZIOAN AITZINDARI

1892. urtean eratu zenetik aurrera, garai hartarako ez ohikoa zen ibilbidea hasi zuen: Espainiako Estatuan ordura arte estreinatu gabeko obrak interpretatzeari ekin zion. Besteak beste, Beethoven-en *Misa Solemnis* edo J.S.

Emakumeek 1906. urtetik aurrera ekin zioten Orfeon Pamplonesen abesteari

Bach-en *Misa en Si*.

Garai hartan, gizonezkoek baino ez zuten abesten orfeoiak. 1906tik aurrera, baina, emakumezkoen ahotsak ere sartu zituzten orfeoiak. Alfonso XIII.aren eta Victoria Eugenia de Battenberg-en ezkontza egunetik aurrera, hain zuzen ere.

Izen handiko zuzendariak izan ditu Orfeon Pamplones-ek. 1928an, esaterako, Maurice Ravel-en hiru obra abestu zituzten: *Tres*

obras para coro, *Nicolette* eta *Trois oiseaux du paradis*, eta Maurice Ravel bera izan zuten zuzendari. Horrez gain, Miguel Angel Gómez Martínez, Michel Plasson, Vladimir Spivakov, Cristobal Halffer eta Alain Lombard ere ibili dira noiz edo noiz Orfeon Pamplones zuzentzen.

Alfonso C. Huarte Guillén da gaur egun zuzendaria, 1998ko urria ezker. Zuzendari horrekin, aro modernoagoa hasi zuen orfeoiak, eta hainbat lehiaketa eta erakustalditan parte hartu zuen. Besteak beste, honako toki hauetan egin ditu emanaldiak: Bilboko Arriagan, Bartzelonako Palau de la Musica-n, Madrilgo Auditorioan eta Teatro Real-en.

Zapatuan Bergaran eskainiko duen kontzertuari dagokionez, San Pedro parrokian izango da, 20:00etan, arestian aipatu bezala, eta doan.

Lau autore, hamalau obra

1. ZATIA

B. Britten: *Hymn to Saint Pete / Hymn of Saint Columba*
F. Mendelssohn: *Lauda Sion*

2. ZATIA

F. Remacha: *De colores / Dices que no me quieres / ¡Qué contenta estoy! / Los serranos inocentes*
J.A. Huarte: *Muntanyes del Canigo / El Cant dels Ocells / Argizagi Ederra / Makilla or Elduda/ Itxasuetan / Goizian Argi Hastean / Atte Ttun Ttun*

Organoa: Raúl del Toro / **Sopranoa:** Maite Itoiz
Zuzendaria: Alfonso C. Huarte Guillén

LABUR

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Osintxuko pilotalekuan domeka eguerdian

Udal Musika Bandak kontzertua egingo du domeka, hilak 28, Osintxuko Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Kontzertua Udazken Kulturalako egitarauaren barruan dago.

Ondorengo egitaraua eskainiko du Osintxuko emanaldian Udal Musika Bandak: E. Rosillo-ren *La millor terra del mon* pasodoblea, J. Sibelius-en *Finlandia* poema sinfonikoa, J. Guridiren *Ezpata-dantza de Amaia* ezpata-dantza, eta A. Malando-ren *Rivieren Cyclus* suitea. Zuzendari lanetan Alfredo González Chirlaquek jardungo du.

Juanlu Escudero aktoreak eta Txan Magoak ikuskizuna eskainiko dute Pol-Pol tabernan

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, *Rie... soy un calavera* ikuskizuna eskainiko du Juanlu Escudero aktoreak Pol-Pol tabernan. Ordu eta laurden iraungo duen monologoan, pil-pilean dauden hainbat gairi buruz jardungo du Zumarragako aktoreak: sexua, agintzeko artea, gizakion jokabideak... Guztia, jakina, umore handiz jorratua. Juanlu Escudero hainbat lan egin ditu Teatro Geroa, Teatro Arriaga, Teatro El Cruce eta Ados Teatroarekin (*Ertzaina al Pil-Pil*, *Manolito Gafotas*...). Telebistarako eta zinemarako ere hainbat lan egin ditu: *Entre dos fuegos*, *Alquila 2*, *27 ordu*, *Visionarios*... Pol-Polen antzeztuko duena bakarkako bigarren lana du.

Juanlu Escuderoaren emanaldiaz gain, beste ikuskizun bat ere egongo da Pol-Pol tabernan. Urriaren 31n, eguaztena, Txan Magoak bere abileziaren erakustaldia egingo du 22:00etan. Emanaldi hori Kultur Errotaren ekitaldi sortaren barruan dago.



Irudian, *8 olivetti poetiko* antzezlanaren une bat.

'8 olivetti poetiko' antzezlanaren Novedadesen azaroaren 2an

La Fabrica de Teatro Imaginario konpainiak *8 olivetti poetiko* lana ekarriko du gure artera Domu Santuko zubian.

Antzezlanaren Bilbon girotuta dago, 1999. urtean, eta ahaztutako egunkari baten erredakzioan oinarritzen da.

Oso kritika onak izan ditu antzezlanak. Harkaitz Cano idazleak, esaterako, honela deskribatzen du *8 olivetti poetiko*: "Izpiritu trufalarientzat idatzitako gidoia, egunerokotasunari lotutako erreferentziak bere baitara biltzeko moldaeraza da, eta zorrotasun handiz barre egiten die konbentzioei eta publikoari. Aktore bakoitzak ezin hobeto islatzen du norberaren eromen berezitatea. Olivetti poetiko hauen isto-

ria ganberroa da agian, baina baita sakona ere. Aire bafada fresko bat, publikoari jaurtitako letxuetan hezurmamitua".

FITXA TEKNIKO ETA ARTISTIKOA

Antzezlanaren ideia originala Ander Lipus elgoibartarrarena da. Musika, Aitor Agirianorena. Aktoreei dagokienez, honako hauek osatzen dute 8 olivettien taldea: Terri Florido, Itziar Izarra, Ander Lipus, Miriam K. Martxante, Alex Gerediaga, Na Gomes, Miren Gaztañaga, Veronica Fernández, Ainhoa Jauregi, Gabriel Ocina eta Leire Ucha.

8 olivetti poetiko, azaroaren 2an, Novedades aretoan, 22:30ean, Fabrica de Teatro Imaginario taldearen eskutik.

E, TXO!

GUREGAIK/ INTERNET DOAN

GAZTETXEKO ZINEMA
ESKAINZA ATZERATUTA

Aurreko astean Gaztetxe-
ak eguazteno film bat
eskainiko zuela iragarri
genizuen. Orain, berriz,
emanaldi horien beste
berri batekin gatzokizue;
izan ere, proiektoreare-
kin arazoren bat edo
beste izan dute, eta
oraingo, emanaldi
horiek bertan behera
lagatzea erabaki dute.
Kontua da, irudiak zuri-
beltzean bakarrik ikusten
zirela, eta aparatua
konpontzera bidali dute.
Emanaldiekin berriro
hasten direnean, izango
duzue horren berri.

KUADRILLATEGI ZAPATUAN

Jardunen Kuadrillategi
egitasmoan izena eman
duzuen kide guztiok,
bihar, zapatua, arratsal-
deko 15:30ean Seminario-
ko patioan duzue hitzor-
dua.

Sukaldaritzan arituko
dira oraingo zapatuan.
Errezeta berriak ikasteko
aukera paregabea izango
dute gazte koadrila
horiek guztiok; bide
batez, zainzuriak eta
alberjiniak zer diren ere
ikasi ahal izango dute. Ez
ahaztu, zapatuan,
15:30ean Seminarioko
patioan.

INFORMAZIOA ESKURA

Konturatu zineten,
azkeneko bi aste hauetan
ez dugula Gazte Informa-
zio Bulegoaren ohiko
zutabea argitaratu.
Baina, lasai, laster hasiko
gara berriro zutabe hori
eskaintzen. BERRIGA-
RAN izan beharrean,
baina, Goienkarian
aurkituko duzue.

Bide batez, gogoratu,
eguen, egubakoitz eta
zapatuetan duzuela Gazte
Informazio Bulegoa
zabalik, Kultura Etxean.
Eguen eta egubakoitzetan
16:00etatik 20:00etara, eta
zapatuetan, berriz,
goizeko 9:00etatik
13:00etara.

Interneten pezetarik ordaintzeke ere ibili daiteke Bergaran

AINTZANE IRIZAR


Miguel Altuna institutuak
duela urtebete jarri zuen abian
zerbitzu hori. Hamasei ordena-
gailu daude erabili nahi
duenaren eskura. 16 urtetik
aurrerako gazte eta ez hain
gazteendako zabalik dago.

Iazko ikasturte hasieran, urrian,
hain zuzen ere, 16 ordenagailuz
hornitutako gela zabaldu zuen
Miguel Altuna institutuak. Orde-
nagailu horiek guztiak ematen
dute interneten ibiltzeko aukera,
eta bertako ikasleez gain, kan-
poko edozeini ere zuzenduta dago
zerbitzu hau. Doakoa da, gaine-
ra, ez da batere ordaindu behar.
Ia 6.000 lagunek erabili zuen zer-
bitzua iaz.

*Ez dago alde
aurretik txanda
hartu beharrik,
nahikoa da bertara
joatearekin*

EGUNERO ZABALIK

Astelehenetik egubakoitzera
zabalik egoten da ordenagailu
gela hori, arratsaldeko 15:00eta-
tik 19:00etara. Zapatuetan, berriz,
goizez: 9:00etatik 13:00etara, hain
zuzen ere. Ez dago ordurik hartu
beharrik; nahikoa da bertara joa-
tearekin. Bi baldintza besterik ez



EDU MENDIBIL

Miguel Altunan 16 ordenadore daude, nahi duen edonoren eskura.

dituzte jartzen arduradunek: bestalde, 16 urtetik beherakoek
gehienez ere bi ordu jarraian era- ezingo dute internet zerbitzua
bili dezake bakoitzak internet; erabili.

LOTSABARIK/ Itxaro Arantzabal

“Nire behatzak asko gustatzen zaizkit”

AINTZANE IRIZAR

Trikitalaria eta, batez ere,
musikazalea da Itxaro. Neska
alaia eta irekia. Elkarrizketa
hau egiteko ere ez zigun, ez,
traba handirik jarri; kontrakoa,
segituan esan zigun: “kontatu
nirekin”.

• Txikitan zer izatea nahi
zenuen?

Gauza asko: erizaina, gero
sukaldaria eta gero erretiratua.

• Zelan ikusten duzu zeure
burua hemendik 20 urtera?

Irakasle lanean, ezkondata
eta seme-alabekin.

• Gurasoek zer errepikatzen
dizute behin eta berriz?

Ohea egiteko eta etxeko lane-
tan laguntzeko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes
egiteko taktika bat?

Lagun bat etxera gonbidatzea.
Horrela, amak ez dit esango ezin
dudala irten.

• Bizitzan zeri ematen diozu
lehentasuna?

Momentu honetan, ikasketei,
eta baita familiari eta maite ditu-
danei ere.

• Zure bertute bat?

Pertsona alai eta irekia nai-
zela eta komunikatzeko ez dau-
kadala arazorik.

• Eta defektu bat?

Jenio txarra daukadala.

• Zerk amorrarazten zaitu?

Gauza bat gogo handiz pres-

tatu eta jendeak akatsak atera-
tzeak. Atzetik nitaz gaizki esaka
ibiltzeak ere bai.

• Zure gorputzeko atalik gus-
tukoena?

Nire oinetako behatzak asko
gustatzen zaizkit.

• Jendeari, zeri botatzen dio-
zu begia lehenengo?

Begiradari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez. Hori ez dator nere-
kin. Ni naizen bezalakoa naiz, eta
seduzitzen baldin badut ondo, eta
bestela ere bai.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin
eta non?

Hori ezingo da erantzun, ezta?
Hori gauza oso pertsonala da eta
ez dio inori ardura.



ADINA: 20 urte • IKASKETAK: Heziketa Berezia ikasten dihardu • ZALETASUNAK: Musika eta kantatzea
LIBURU BAT: Ez zaio irakurtzea gustatzen • FILM BAT: Braveheart • MUSIKA TALDEA: Etzakit eta Betagarri • KIROL TALDEA: Athletic



Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

MARIA CARMEN LOPEZ



olio-erakusketa

NAHIKARI taberna. Masterreka 20. Bergara. Tf. 943 76 57 71

ZAHARREN ETXETIK



Mercé Pérez martitzeneko hitzaldian. Atzean, Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentea.

Mercé Pérez: "Partaidetza oso onuragarria da erretiratuendako"

EDU MENDIBIL

Gaurko gizartean erretiratuaren partaidetzaren garrantzia azpimarratu zuen Mercé Pérez psikologoak martitzenean Miguel Altuna Institutuan egindako hitzaldian. Aretoa jendez gainezka zegoela, Mercé Pérezek partaidetzaren erronka jorratu zuen.

San Joxepe elkarteak gonbidatuta Bartzelonatik etorritako psikologoaren hitzetan, "zaharretzek guztioi eragiten digu, ez zaharrei bakarrik. Pertsona zaharren kopurua gero eta handiagoa da, eta zaharrek duten kapitalari etekina atera behar diogu. Euren giza esperientziak edo esperientzia profesionalak aprobetxatu beharreko balioak dira. XXI. mendeko gizartearen erronka nagusietako bat da pertsona zaharrak kontuan hartzea, denok ahalik eta ondoen egoki gaitezen zahartze prozesu horretara".

Era berean, zahartzaroan ikastaldi prozesua amaitzen ez

dela azpimarratu zuen Pérezek: "Zahartzaroan ikasten jarrai dezakegu. Eta gaitasun hori eguneroko bizitzan praktikan jarri beharra dago".

PARTAIDETZAREN GARRANTZIA

Aurrekoarekin lotuta, zahartzaroa ekimen berriak abian jartze-

Hamabostaldiaren amaiera zapatuan

Erretiratuaren Kultur Hamabostaldiaren amaiera ekitaldia izango da zapatuan, 12:30ean, Miguel Altunako aretoan. Hantxe, besteak beste, Antzuolako eta Bergarako udal ordezkariak izango dira. Gero, 120 lagun inguru batuko dira Zabalotegiko frontoian egingo den herri bazkarian. Bazkalostean, opari zozketa eta dantzaldia izango dira.

ko garai aproposa izan daitekeela gaineratu zuen: "Partaidetza oso onuragarria da, psikologikoki, erretiratuendako, ekintzaren bitartez gure bizitzaren kontrol handiagoa izatea lortzen delako. Guri ateak irekitzeko zain egon beharrean, gu izan gaitezke prozesu horren eragileak. Askotan instituzioen eskaintzaren zain egoten gara, baina hobe da gure inizatiba propioa abian jartzea, askoz ere aberasgarriagoa delako. Bestalde, oso inportantea da gustura parte hartzea, ondo pasatzea. Gure ekintzari zer-nolako etekina ateratzen diogun, ekintza horren kalitatea neurtzea ezinbestekoa da".

Partaidetza aztertzerakoan gizonen eta emakumeen arteko bereizketa ere egin zuen Mercé Pérezek: "Emakumeak zuzendaritza postuetan gutxiago egon izan dira, baina, aldiz, oso gestore onak izan dira. Elkartearen eguneroko jardunean eraginkorra goak dira normalean. Dena dela, rolak ez dira finakoak, eta ohiturak aldatuz doaz poliki-poliki. Berdintasunaren bidean gaude".

LABUR

Memoria tailerra San Joxepe elkarteaz azarotik urtarrilera bitartean

Hirugarren Adineko Komunitate Institutua (ICTE) delakoaren eskutik, memoria tailerra izango da azaroaren 22tik urtarrilaren 24ra bitartean San Joxepe elkartearen, martitzen eta eguenetan, 16:00etatik 17:30era. Memoria lantzeko ariketak landuko dituzte. Azaroaren 1etik 15era bitartean eman ahal izango da izena San Joxepearen 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.

Euroaren erabilera aztergai izango dute erretiratuek astelehenean

Astelehenean, urriaren 29an, euroaren erabilerearen gainean hitzaldia izango da San Joxepe elkartearen, 17:00etan. La Caixa fundazioak eta Bergarako erretiratuaren elkarteak antolatutako ekimena da, eta adibide praktikoak egingo dituzte datorren urtean Europan indarrean jarriko den moneta berriaren gainean.

Tomasa Zabaletak Pertsona Nagusien Topaketa aurkeztu zuen Donostian

Tomasa Zabaleta Gipuzkoako Pertsona Nagusien Kontseiluko presidenteordeak gaur, egubakoitza, Donostian ospatzekoa zen Pertsona Nagusien Kontseiluen Topaketa aurkeztu zuen. Zabaletak prentsaurrean adierazi zuenez, pertsona nagusien zeregin soziala definitzea lehentasunezko gaia da. Administrazioari erretiratuendako politika sozialak garatzeko eskaera ere luzatu zion.

ZAHARREN AHOTIK

Juanito Imaz "Errenteri"

SAN MARTIN PLAZAN 25 URTEAN POSTUAREKIN


Bizkarreko eta gerriko arazoak direla medio aspaldi ez dugula ikusten Udaletxeko arkupeetan, bere jolas eta bitxikeriekin umeak alaitu nahirik.

Zenbat urte daramatzazu plazako postutxoarekin?

Orain dela 25 urte-edo hasiko nintzen. Lau alkate, behintzat, ezagutu ditut Udaletxeko arkupeetan nagoenetik: Elkorro, Zabala, Bolinaga eta Victoriano. Bergaran zapatuetan egoten naiz eta Gasteizen postua jartzeko ere baimena daukat. Han Espainia plazan egoten naiz.

Azken boladan erretiratu zaude.

Bizkarretik eta gerritik txarto nabil, eta apirilaren 8tik ez dut posturik jarri plazan. Laster bueltatzea espero dut.



Nobedade berriekin?

Ez, betiko gauzekin: billeteak, txanponak, jostailuak, lauburuak, gurutzeak, giltzatak eta beste hainbat gauza. Niri, batez ere, umeekin jolastea gustatzen zait; fenomeno pasatzen dut eurei jolasak erakusten, eta lacasitosak debalde ematen dizkiet.



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25
35 urte
bitartearaino

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

1. Zenbat lagun inguru joaten dira Bergarako hilerrira egunero-egunero?
A/ 150 lagun.
B/ 50 lagun.
C/ 350 lagun.
2. Norena da 8 olivetti poetiko antzerki lanaren ideia originala?
A/ Bernardo Atxaga.
B/ Ander Lipus.
C/ Asier Serrano.
3. Behobia Txiki lasterketaren zenbatgarren ekitaldia izango da aurtengoa?
A/ Laugarrena.
B/ Hamabigarrena.
C/ Seigarrena.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

UNAI ARIETALEANIZBEASKO aurtzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Unairi!
Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Olaso Torrea** / Galde debalde: **1-C, 2-A, 3-B.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Berberana Oro

ardo beltza, 3/4 litro

2,31€

385 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAKO ZUHAITZAK

Xarma

Carpinus betulus

MAITANE ARIZABALETA

Hogeita hamar metro har dezakeen tamaina ertaineko zuhaitz hosto erorkorra da. Adaburu biribildua eta azala leuna eta grisa du, urteekin zartatua. Hostoak obalatuak edota biribilduak dira, eta oinaldea pixka bat irregularrak dute. Ertz bizerratuak dituzte eta bere azpialdeak ilegabeak dira nerbio galtzarbean ezik. Lore arrek gerba zintzilikarioak eratzen dituzte, emeek ordea, adarren amaieran amentoak. Fruitua udazkenean heltzen den dilista antzerako akenioa da.

Oso espezie rustikoa da eta ia mota guztietako lurzoruetara moldatu eta eguzkitan zein erdi-itzaletan bizi daiteke. Euskal Herrian, batik batik parke eta lorategietan apaingarri gisa landatzen den espeziea da. Zuhaitz egokia da banaka edo talde txikietan sakabanaturik landatzeko. Udazkenean hostoek kolore hori ikusgarria hartzen dute eta lorezaintzan hainbat aldaera erabiltzen dira. Bergaran, xarmak, Simon Arrietan eta Matxiategin ikus ditzakegu.

Egurra gogorra, pisutsua eta kalitate onekoa da, tornugintzan ez ezik sutarako ere oso estimatua.

“Euskal Herrian, batik batik lorategietan apaingarri gisa landatzen da”



EDU MENDIBIL

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12
BERGARA
943 76 03 57

**JOXAN
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



BERGARA
Leire Sanz
30ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Andoni Najera
27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mikel.



BERGARA
Julen Molpeceres
27an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Inmaculada Gantxegi
3an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Mujika
4an 7 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Mikel.



BERGARA
Mikel Rodriguez
4an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Endika Gandiaga
2an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Alazne Etxabarri
4an 3 urte. Urte
askotarako! Etxekoak
bereziki, ama ponteak



BERGARA
Elena Etxabarri
4an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Erroxe eta Alazne.



BERGARA
Rakel Martin
28an 21 urte.
Urte askotarako!
Joseba eta Andoni.



BERGARA
Mikel Azkarate
27an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Mujika
5ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Itsaso Gantxegi
7an 4 urte. Urte
askotarako! Etxekoak eta
lagunak; bereziki, Jon.



BERGARA
Mireia Argarate
30ean 10 urte. Urte
askotarako! Etxeko denok;
bereziki, Xabier eta Paul.



BERGARA
Andoni Moñux
2an 4 urte.
Urte askotarako!
Aitaxo, amatxo eta Miriam.



BERGARA
Eneko Muguruza
26an 14 urte.
Urte askotarako!
Gélako zurrumurruak



BERGARA
Ion Azkarate
1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Olatz.



BERGARA
Andoni Barriobero
31n 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Larrañaga
7an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Mainer Gago
8an 3 urte.
Urte askotarako!
Leire eta etxekoak.



BERGARA
Miren Zaloña
26an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

BABESLEA



**Zatoz zure urtebetetzeko
merienda egitera!
JOLASAK DOAN!**

Amillaga 1. BERGARA. Telefonoa 943 76 94 52

Adi!

Hurrengo zenbakian, **azaroaren 9tik 15era** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!** Irizar jauregian gaituzu: Barrenkalea 33.

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



Partikularren telefono berriak eta aldaketak

- Telefono berria jarri baduzu

- *Berrigara Gida 2001*en zure telefonoa agertzen ez bada

- *Berrigara Gida 2001*en zure telefonoa edo helbidea oker agertzen bada

Berrigarara deitzea

eskertuko genizuke: 943 76 03 97.

Nahiago baduzu, zatoz bertara:

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.

.....Berrigara**GIDA**2002

Mila esker zure laguntzagatik.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko urriaren 26a / 88. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 2570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Gaztetzokoari buruzko iritzia eskatuko diete herriko gaztetzoei

AINZANE IRIZAR

Gaztetzokoarekin zer gertatu den erabakitzeke dago. Martitzenean, gurasoendako batzarra egin zuten, Gaztetzokoa ixteko asmoaren berri emateko. Behin betiko erabakia hartu aurretik, gaztetzoei euren iritzia zein den galdeztzea erabaki zuten.

Aurtengoa Gaztetzokoaren bosgarren ikasturtea izango litzateke. Baina, esan bezala, oraindik ez dute erabaki aisialdiko txoko horrekin aurrera jarraitu edo ez.

Pausokako kideek, DBHko ikasleen gurasoek eta Udaleko ordezkariak Gaztetzokoaren jarraipen batzordea osatzen dute. Batzorde horren zeregina Gaztetzokoaren funtzionamendua

jarraitzea da. Asteburuetako aisialdi ekintzetara azkenaldian gero eta ume gutxiago joaten zirela eta joaten zirenak ere oso gustura ez zeudela ikusita, Gaztetzokoaren etorkizuna zalantzan jarri zuten jarraipen batzordeak.

UMEEN IRITZIA JAKIN NAHI DUTE

Oraingo astean bertan, martitzenean, batzar informatiboa egin zuten batzordeak. Behin Gaztetzokoa ixteko erabakia hartuta, erabaki hori gurasoei jakinaraztea beharrezko ikusi, eta horretarako egin zuten batzar hori, gurasoak jakinaren gainean egon zitezten, hain zuzen ere. Batzar horretan behin betiko erabakia hartu aurretik, umeei euren iritzia zein den galdeztzeko proposamena egin zuten hainbat gurasok, eta proposamen hori onartu egin zuten.

Gauzak horrela, galdetegiak prestatuko dute eta ume guztiei bidaliko diete etxera. Herriko ume guztiei bidaliko diete, bai Gaztetzokoan ibilitakoei, baita ibili ez direnei ere. Erantzunak anonimoak izango dira, horrela, norberak nahi duen erantzuna eman dezan, lasai. Ekimen horren helburua izango da, behin umeen iritzia jakinda, aurrera jarraitzea merezi duen edo ez erabakitzea, eta jarraitzekotan, umeei zein erabaki aisialdi eskaintza nahi duten jakitea. Baliteke orain arteko eskaintzak umeen nahiak edo beharrak ez betetzea ere. Gauzak horrela, hemendik aste batzuetara hartuko dute behin betiko erabakia.



ARTXIBOA

Ekitaldi ugari egingo dituzte Gaztetzokoan; hemen, inauterietako argazkia.



Futbolean, lagun berriak eginez

Urriaren 12an, lagun arteko partidua jokatu zuten Antzuola eta Elgetako benjamin eta alebin mailako gaztetzoei. Lagun arteko baina, lagunak egiteko partidua izan zen; izan ere, 10 eta 11 urteko neska-mutiko horiek Bergarara joan behar dira ikastera laster, eta era honetako ekitaldiek elkar ezagutzeko balio izango dute. /AINZANE IRIZAR

LABUR

Perretxiko erakusketa egingo du Arrolak herriko plazan domeka goizean

Joan den domekarako, urriaren 21erako, aurrez ikusita zegoen erakusketa. Baina euri gutxi egin zuela-eta, atzeratzea erabaki zuten. Azkenean, domekan, urriaren 28an, egingo dute. Zapatuan joango dira erakusketarako perretxikoak batzera. Aurten, beritasun batekin datozkigu Arrolakoak: izan ere, domeka goizean umeei perretxikoak batzera joango dira inguruko basoetara.


Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haie egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

BASERRIZBASERRI/ Iturriotz



TREN GELTOKI ALBOAN Herrigunetik kilometro pasatxora dago Iturriotz, Uzarraga auzoan, garai baten tren geltokia izandakoaren alboan. Baserri honen lehen aipamena 1391koa da; Johan Sanches bizi zen bertan. 1956an sua hartu zuen baserriak. 1893ko uztailaren 14an ere albiste izan zen Iturriotz; tren istripu larria gertatu zen baserri alboan, tren geltokian. Zazpi pertsona hil, tartean Deustuko alkatea zena, eta 40 bat lagun zauritu ziren. "Unión Vascongada" eta "El fuerista" egunkariak istripu horren berri jaso zuten, eta baserriarrek zauritutakoek eskainitako laguntza goraiatu. Tartean, Iturriotz aipatzen zuten. Gaur egun etxebizitzetako bat hutsik dago, eta bestean, Jon Iñaki Yarza bizi da. /IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

ANTZUOLAKO HIZKERAN

ESAMOLDEA

• **HANKA JOKUA**
Mugimendu azkarra, presakako ibilera, abiada... *Hanka jokia, orpo jokia, orpo otza, porru otza eta porru jorria* ere erabilzen dira.

Ximon ikusi zebanian Juanitak eruan zeban hanka jokua!

ATSOTITZA

• **Ate aiña maatilla.**
1. Norbaitek edozertarako erantzuna duenean esan ohi da. Esandako zerbaiten kontra arrazo bat ematea, eta beste iritzi bat eman eta haren kontra ere bai, eta abar.

2. Arazoak bazter guztietan daudela adierazteko.

HITZAK

• **DANBARRARA**
Trumoiak jotzen duenean edo zerbait lurrera jausten denean ateratzen duen zarata handia. *Trumoe danbarrara bat izen da! / Ganbaran suabetxuak bota izue artua holako danbarraraik eta atzeke!*

• **EGUNDOKO**
Sekulako. Zaharrek asko erabiltzen dute hitz hau; gazteek gehiago erabiltzen dituzte *sekulako* eta *ikaragarri*. *Egundoko boketia egin otzan bentaniai.*

Jone Larrañagaren 'Antzuolako hizkera' liburutik

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIK

DYA 943 78 71 57
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Medikua 943 76 62 23
Praktikantea 943 76 63 80
Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40

UDALA

Udaletxea 943 76 62 46
Kultura 943 76 64 80
Liburutegia 943 76 60 65

BESTELAKOAK

Idolaz 943 78 60 12
Herri ikastetxea 943 76 62 68
Jubilatuak elkarrekin 943 76 62 71
Abadetxea 943 76 64 16
Anelkar (Kontxi) 943 78 70 65
Taxiak: Antonio Fernández ... 669 15 65 40
Jesus M. Fernández ... 607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapaletan: 19:30
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

KULKIREKIN JOLASEAN

Bihar, zapatua, arratsaldeko 17:30etik aurrera jolaserako aukera ederra izango dute Antzuolako umeek. Kulki elkarrearen eskutik etorriko zaigu joalserako aukera hori. Euskal kultura eta kirola bultzatzeko elkarteak da; euren helburua da, jolasaren bitartez, umei euskal ohiturak ezagutaraztea. Oraingo honetan, artzainen bizimodu eta artzaintza bera ezagutzeko jolasak antolatuko dituzte.

ARGAZKI LEHIAKETAKO ERAKUSKETA

Urriaren 11n bukatu zen argazki lehiaketan aurkezteko epea, eta 14 lagunek parte hartu dute. Oraindik ez dituzte argazki irabazleak aukeratu. Baina, behin aukeratu dituztenean, lehiaketan parte hartu duten argazki guztiekin erakusketa antolatuko dute udaletzeko pleno aretoan. Azaro amaieran izango da, ziurrenik.

ATREBENTZIAEZPADA/ Etxe asko dabitzen egiten. Ze ekarriko jao horrek herrixai?




ESTHER CRESPO
52 urte

Jende asko etorriko da hona bizitzera, eta posible da horrek bizitasuna emotia herrixai. Umien dako parke bat egittia be komeniko litzake.



LEONOR FRUTOS
75 urte

Oso ondo pentsatzen jat etxiak egittia. Jende asko bihar izen zan kanpora duela urte batzuk, eta denda batzuk itxi be egin bihar izan ziran.



KARLOS AZKARATE-ASKASUA
32 urte

Kanpoko jende asko etorriko da, hemen merkia go darelako etxiak; asko lo egittera bakarrik etorriko dira hona. Hori, nere ustez, ez da txarra.



ROSA RODRIGUEZ
30 urte

Etxiak egittia gauza ona izan biharko litzake, baina umerik ez badauke, hona lo egittera besterik ez dira etorriko, ez dabe hemen bizitarik egingo.



JOSE LUIS LEZETA
60 urte

Kalterik bapez, horrek beti mesede egiten jao herrixai. Gaiñera, etxiak egittia jendiak dirua daukan seiñalia izango dala uste dot.



Juan Cruz

ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Itzar
LIBURUDENDA ESTANKOA

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko urriaren 26a / 73. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 2570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Herriko sarrerak konpondu ostean, autoek abiadura jaisteko neurriak pentsatzen

OXEL EROSTARBE

Herriko sarrerak konpontzen jardun ondoren, autoek herriko igarotzean daramaten abiadura jaisteko neurri egokiak pentsatzen dihardute Diputazioko teknikariak. Hartu beharreko neurriak Udalaren eta Diputazioaren artean adostuak izan beharko dira.

Azken bi asteetan, Elgetako sarrerak konpontzeko lanak egiten jardun dute. Bergarako irteerako bidean eta Elgetako sarreretan, zorua konpondu dute, lehengoa egoera txarrean zegoen eta. Elgetako sarreran zoru berria jartzeaz gain, bide ertzeko ubideak konpondu dituzte. Aste honetan bertan, bideak eta herriko zebra bideak margotzen aritu dira, eta bidean egin beharreko lanak amaitutzat eman dituzte. Egin dituzten lanek 21 milioiko kostua izan dute eta Diputazioak egin ditu.

AUTOEN ABIADURAGATIK KEZKATUTA

Diputazioko teknikariak eta Udalak, autoek herriko igarotzean daramaten abiadura jaisteko neu-



Bidea eta zebra bideak margotuta, bukatu dituzte errepideak egokitzeko lanak

ri egokiak zeintzuk diren pentsatzen dihardute.

Autoek abiadura jaitzi dezaten, hartu ditzaketen neurrien artean, guztiz baztertu dute abiadu-

ra jaisteko bandak jartzea. Diputazioko teknikarien esanetan, autoak abiadura egokia eraman dezaten, zebra bideak altxatu edo zoladura ezberdinak jartzea, izan

daitezke irtenbideak. Udala eta Diputazioa, hartu beharreko neurriak adosten ari dira. Oraingo ez dago, neurri hauek noiz hartuko dituzten erabakita.

21 milioiko kostua izan dute, zoru berria jartzeko eta ubideak konpontzeko lanek

Diputazioko teknikariak, guztiz baztertu dute, abiadura jaisteko bandak jartzea

Zebra bideak altxatu edo zoladura ezberdina jartzea, autoek abiadura jaisteko irtenbideak

JENTREBISTAK/ Ze eritzi dakazu Gobernu batzordian banaketiaren gaiñian?

LABUR



IDOIA UBERA
33 urte

Nere ustez, gauzak alkarrekin egittia herrixandako onena da. Ze pasau dan ez dakit ondo, nahixago nuke alkarrekin gauzak aurrera ataratzia.



JOSU DE VEGA
41 urte

Herri txikixetan politikuak alkarrekin ez egotia lanerako prest dagon jendia atzera bota leike. Proiektu abertzalia eruan bihar leukie batera.



TERE DESKARGA
33 urte

Ez dakat banatzeko euki ditzuten arrazoien barri. Nere ustetan, batera lan egittia hobeto izango litzake. Herrixandako garrantzitsua izango litzake.



JOKIN ARANTZABAL
19 urte

Bi alderdi dirala jakinda, batera egin bihar leukie lan. Erabaki garrantzitsuenak alkarrekin hartzia herrixaren onerako izango litzake.



BEGOÑA ARDANTZA
56 urte

Herrixandako batera egoitia hobeto izan arren, ezin izan die alkarrekin konpondu. Konpondu eziñaren ondorixua izan da banaketia.

Domeka goizean perretxikotara Mayakoekin

Domeka goizean, Maya Inguirugiro Taldeak antolatutako perretxiko lehiaketa izango da.

Lehen Hezkuntzako 2 eta 3. zikloan eta Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleek hartu dezakete parte lehiaketan. Lau laguneko taldeak osatu beharko dira derrigorrez. Perretxikoak, goizeko 12:00-etarako plazara aurkeztu beharko dituzte. Lehiaketa eta gero, aurkeztutako perretxiko guztiekin, erakusketa egingo dute plazan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIXAK
 Medikua 943 76 81 93
 Txandia hartzeko 943 76 24 40
 DYA 943 46 46 22
 Gurutze Gorria 943 22 22 22
 Odol emailiak 943 76 16 24
 Ertzaintza 943 76 53 40
 Suhiltzailiak 943 78 28 00

GARRIAUAK
 Taxiak 943 79 12 22
 Pesa 902 10 12 10

UDALA
 Buleguak 943 76 80 22
 Faxa 943 76 82 89
 Kiroldegia 943 76 82 84
 Eskola 943 76 82 26

BESTELAKUAK
 Parrokia 943 76 81 45
 San Andres Parrokia 943 20 11 51
 Farmazia 943 78 81 50
 Goibekokale (Goienkaria) 943 76 92 71
 Gaztetxea 943 78 90 43
 Guraso Elkartea 943 76 82 26
 Ozkarbi K.J.E. 943 76 81 49
 Intxorta K.J.E. 943 76 81 46
 Ozkarbi Pilota Taldea 943 76 81 49

MEZAK
 Zapatueta iluntzeko 19:30ean
 Domekataran eguerdik 12:00etan

OHARRAK

OLIO BILKETA

Hilero, Mayakoek egiten duten olio bilketa izango da gaur, urriak 26, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Sukaldean erabilitako olio batzeak, harrera nahiko ona izan du herritarren artean

Mayakoek, hilero egiten duten bilketan batzen duten olio, birziklatu egiten da gero, horretan aritzen den enpresa batean.

SINADURA BILKETA

Domekan, urriak 28, eguerdiko 12:00ak eta 14:00ak bitartean, Abiadura Handiko Trenaren aurkako sinadura bilketa izango da plazan.

Deba Goienero herri guztietan, sinadura bilketa hau egiteko asmoa daukate AHTren Aurkako Asanbladakoe.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako banderak ere salgai izango dira eguerdian.

KIROLA

Estampaciones Intxortak 89 eta 19 irabazita hasi du denboraldia

OXEL EROSTARBE

Estampaciones Intxorta saskibalo taldeak, domekan hasi zuen aurtengo denboraldia. Iaz liga eta kopa irabazi eta gero, txapelketa irabazteko faboritoen artean dago. Lehenengo partidari, 89 eta 19 irabazi zion txapelketako talde gazteenetakoari.



Txapelketa irabazteko faboritoak dira Estampaciones Intxortakoak

Aurreko asteburuan ekin zion Eibarko saskibalo txapelketak.

Urtero moduan, Estampaciones Intxorta saskibalo taldeak, lehenengo artean egoteko taldea dauka. Zortzi taldek hartuko dute parte aurtengo txapelketan. Azitain Taberna, Maixa Taberna eta Estampaciones Intxorta dira txapelketa irabazteko faboritoak.

Hasiera ona egin dute elgetarrek txapelketan, lehen partidari, 89 eta 19 nagusitu zitzaizkon Telearines Club talde gazteari. Elgetarrak, hasiera hasieratik nagusi izan ziren markagailuan eta atsedenaldirako, neurkita erabakita zegoen elgetarren alde. Aurkako taldearekin alderatuz,

esperientzia handiagoa azaldu zuten elgetarrek. Azken emaitza, saskien azpian erakutsitako jokarekin bat etorri zen. Aipatu behar, Eñaut Arantzetak debuta egin zuen lehenengo partidari.

TXAPELKETAKO ONENEN ARTEAN

Azken urteetan emaitza oso onak

lortu ditu Estampaciones Intxortak. Azken hiru urteetan, ligako txapelkunak izan dira eta iaz Eibarko txapelketako liga eta kopa irabazi zituzten.

Elgetarrek esperientzia handia dute eta talde gogorra osatzen dute, gainera aspalditik jokatzeko dute elkarrekin.

HERRITARREN HITZA / Jabier Arantzeta · Irakaslia

Baskós

Familixako harremanak dirala eta, behin baino gehixautan fan izan naiz Nafarroara. Hara ailegatzen giñan gehixenetan, han egoten zan gizon zahartxo batek "hola baskós" esaten zoskun, bere borondaterik onenakin ongi etorrixa emonaz.

Neri beti egin izan jatan deigarrixa esaera hori. Izan be, han herrixan bertan be, azkenengo hauteskundietan ikusi zan moduan, badira ehunen bat pertsona euren burua "baskó"-tzat dabenak. Hala eta be, aguretxua, "baskó" gora eta "baskó" behera ibiltzen zan. Beti be sinpatiko

eta jator, gauza txarrik esaten ez zebalakuan.

Bada, hau herrixau Mendabia da, eta aurreko domekan, aldamenian dagoen Lodosara 125.000 "baskó" arrimatu giñan Nafarroa Oiñez zala eta ez zala. Bertako batzuk bazeuken kezka apurren bat, horrenbeste "baskó"kin gauza onik ez zala izango eta. Beste batzuk pozik ziran, piparrak sendo salduko zittuela, eta



"Euskeria ez dala banatzeko izan bihar diñue"

beste askok ahalegin haundixak egin zittuen han gertatzen zanetik ezer ez ikusteko (gauza jakiña da ikusi nahi ez dabenak ez dabela ezer ikusten).

Hala ta be, behinguagaittik eguraldixa be lagun, eta han ibili giñan ahal giñuanak euskaraz eta ezin ebenak gutxienez "egunon" edo "eskerrrik asko" esaten. Izan be, gogorra da ikustia gero, horrenbeste eta horrenbeste

"tolerante demokratiko"-ri, zenbat kostatzen jakuen horrek esatia.

Beste gauza batzuk errez asko esaten dittue: euskeria ez dala banatzeko izan bihar, esate baterako, sarri-sarri esaten dabe, erabiltzen dogunok, banatzen dogula esan guraz. Baiña eurei, ez jakue okurrittu be egitten, ikasten hastia bez!

Bada hori, danok egun pasa ederra egin giñuan. Datorren urtian Tuterara, ia ordurako danok benetan "tolerante" jarri eta arabien "shalam Aleikun" eta juduen "shalom" esaten ikasten dugun!

Uriburu UTEK saltzen du:

Domingo Iturbe kalean
ETXABE KOMERTZIALA
 Etxe berrien azpian
PREZIO INTERESGARRIAK
 943 76 11 23
 670 781 759

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26
 ELGETA
 Tel: 768190

Aintzane denda



zugandik gertu,
 behar duzun beste

Domingo Iturbe 4, ELGETA
 Tel: 943 768297



Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
 ETA BEROGAILUAK**
 Artakale 3
 Mo: 656783299 Eibar
 Tel: 943 70 07 19
**KONPONKETAK
 SUKALDE
 ETA BAINUGELETAN**

ERRETRATU ZAHARRA

Abuztuko
oporraldia
Elosun

Hainbat irteera egiten dituzte Herri Ikastetxeko neska-mutikoek urtean zehar. Ikasturte hasieran, gainera, hiruzpalau egun pasatzera joaten dira kanpora.

Hori, baina, ez da oraingo kontua. Honako argazki hau 1976 ingurukoa da. Orduan ere egiten zituzten irteerak, eta Elosuko aterpetxera joaten ziren egun batzuk pasatzera, baina ez ikasturtean, gaur egun bezala, abuztuan baizik. Gaur egungo udalekuen funtzioa betetzen zuten irteera horiek, eta irakasle eta gurasoak joaten ziren ziren umeekin. Irakasleak begirale moduan, eta gurasoak sukaldari moduan.

Argazkikoak hiru kinta ezberdineko neska-mutikoak dituzue, 5, 6 eta 7 urte zituzten orduan, eta ume batzuk mozorrotuta daude. Honako hauek dira, ezkerretik eskumara, argazkian azaltzen direnak:

Zutik: ezezaguna, Belen Azkarate, Nerea Garitano, Fernando Garitano, Eli Ena, ezezaguna, Jokin Zubillaga, ezezaguna, ezezaguna, Sergio Colomi-



nas, Miren Karmele Iparragirre eta Olaia Lamariano.

Belauniko: Gorka Garitano, Jon Kortabarría, Mikel Larrañaga, Jesus Mari Amasorrain, Andres Arbulu, Jon Ander Toledo eta ezezaguna.

Argazkia: Miren Karmele Iparragirre

ADI IRAKURLE!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARA bertara ekar dezakezu.

Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Eguzki auzoa
eraikitzen, 70
hamarkadan

Garai hartako ekonomia-
ren oparotasunari
esker, 1960ko hamarka-
datik aurrera etxe ugari egin
zen Antzuolan, Antiguako
poligonoa eta Beheko auzoa,
esate baterako. Eguzki auzoa,
berriz, 1970eko hamarkadan
eraiki zuten, 1977an, hain
zuzen ere.


Orain, Eguzki auzoaren
ostean, errekararen bestaldean,
etxeak eraikitzen ari dira.



1977 Berriotxoa eskola eta San Bartolome basiliza bota egin zituzten. Argazkian ageri den zelaian, berriz, Aiherrako etxe multzoa dago gaur egun.



2001 Gaur egun, Berriotxoa eskola desagertuta dago baina San Bartolome basilizaren kanpaia lotu tegi txiki batean gordetzen da.



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA
Tr. / faxa 943 76 59 53.



Zumelaga
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**Zuri Beltz
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA



GORLA KANTINA

- **Bazkariak**
enkarguz:
627 818 212
- **Pintxoak**
- **Kazuelatxoak**
- **Ogitartekoak**



ZABALDU BERRIA
•
JABE BERRIAK

**Eskerrik asko,
Elosuko feria eguneko
bezero guztioi!**



Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herralde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauk dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.

